

## AURKIBIDEA

### SUMARIOA

#### 1.- BATZORDEAREN AGURRA

#### 2.-MONOGRAFIKOA-GIZARTE ZERBITZUETAKO LEGE AURREPROIEKTUA

·Gizarte zerbitzuetako euskal lege berria: gure herrialderako pauso garrantzitsu bat. L. Fernando Consuegra.

· EAEko Gizarte Zerbitzuen Lege aurreproiektua aruadi berrikuntzaren testuinguruan. Aldaketa idazpena. Helena Sotelo

·Gizarte eta hezkuntza esku- Gizarte Zerbitzuen Euskal Lege berrian. Fermin Martin.

·EAEko Gizarte zerbitzuen egoera eta etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen Legea, Gizarte Langileen ikuspegitik.

·Gizarte Zerbitzuetan gizarte Hezitzaileen integrazioa. Ainhoa Martin/Boni Diaz.

#### 3.-EXPERIENTZIAK

·Eskakizun apaleko zentro bateko inguruan abiatutako Gizarte hezkuntza. Aitziber Arkaute.

·Susterra Elkarte. Susterra.

·Gazte Forum. Oihana Galardi eta Pili Azpeitia.

#### 4.-GAURKOTASUN GAIK

·Ikerketa proiektua EHU-UPVren eta GHEE-CEESPVren artean. Gizarte Hezitzaileen lanbide testuingurua babesgabetasun egoeran dauden haurren eremuan.

·HU/UPV eta GHEE-CEESPV ren arteko Ikerketa proiektua. EHU/UPVko irakasle eta GHEE-CEESPVko elkargokide.

·IBP:Gizarte Hezkuntzako Gidaren Prestaketa. Bilboko Irakasle Eskolako IBP Taldea.

·Gizarte Hezkuntzaren formakuntza hastapenaren etorkizunari begira: Unibertsitate eta Sektore profesionalaren elkarlanerako prozesuaren zertzeladak. EHU/UPVko irakasle eta GHEE-CEESPVko elkargokide.

·"Gizarte babesgabetasun egoeran dauden Haur eta Nerabeen Erotiza Harrerako Baliabideen Dekretu Arautzaileari" buruzko aipamena. Dani Rubio.

·Gizarte hezitzaileentzako laguntza teknikoa edo nork "zaintzen" du "zaintzailea". Jesus Otaño.

#### 5.-ETATU ESPARRUA

·FEAPES. Nestor Sangroniz.

·ASEDES. Flor Hoyos.

·GIZARTE HEZITZAILE ELKARGOEN ESTATUKO KONTSEILU OROKORRA. Alberto Fernandez de San Mamed

·GHEE-CEEPVek estatu mailan duen parte-hartzea. Elena Aycart.

#### 6.- BATZORDEAREN AHOTSAK

·Dokumentu profesionalizataileen argitaratze urtea. Alvaro Cano.

·Elkargoak garatutako ordezkariak. Luz Clemente

·Euskara eta giza-heziketarako eskuhartzea. Mainer Gomez

·Elkargoaren zerbitzuen inguruan zenbait hausnarketa. Andoni Duran

·Harreman hirukia. Elkarrekin lan egiteko eredu. Aitor Avila

#### 7.- HARRESIA

#### 8.- GOMENDIOAK

## AGURRA

Hau da GIZABERRI ALDIZKARIAren lehenengo alea, eta denboran jarraitasuna izatea eta Euskadiko Gizarte Hezitzaile guztientzako erreferentzia izango den aldizkari bihurtzea espero dugu.

Ikus daitekeen moduan, gure jatorriko izena berreskuratu nahi izan dugu, gure Gizaberri maitearena hain zuzen, modu sinbolikoan haren elkarte izpiritua mantentzeko. Izpiritu horrek bizirik jarraitzen du orain gure Elkargo maitean.

Ikusiko duzue honakoa lantzerakoan pertsona ugarik parte hartu duela, gizarte hezitzaileak gehienak eta gure lanbide prozesuan laguntzen duten beste laguntzaile batzuk. Honakoa egiterakoan parte hartu dutenak hogeita hamarretik gora izan dira, eta hemendik gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu.

Elkargoaren azken urteko lanean denbora asko hartu duten funtsezko bi elementu daude, gure lanbide jardunean oinarritzko puntu izateagatik. Biek toki nabarmena dute lehen ale honetan: Gizarte Zerbitzuen Legearen aurreproiektua eta Gizarte Hezitzaileen graduako titulazio berria. Horrekin batera, eduki anitzak izango dira, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen alorreko profesionalen lanaren gainean.

Ilusio handiarekin egin dugu hau, eta espero dugu edukiak konplizitatez begiratzea eta bertan egon daitezkeen akatsak barkatzen jakitea, lehenengoa izanda. Aitzitik, etorkizunean egingo diren aleak hobetzeko zuen iritzia helaraztea nahi genuke, eta horietan laguntzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Jakin ezazue artikulu guztiak Elkargoaren web orrialdean daudela, bai gazteleraz, bai euskaraz.

Zuen gustukoa izatea espero dugu; jaso ezazue besarkada bero bat.

Gobernu Batzordea  
GHEE-CEESPV

## MONOGRAFIKOA

### Gizarte zerbitzuetako euskal lege berria: gure herrialderako pauso garrantzitsu bat

Luis Fernando Consuegra  
Gizarte Zerbitzuetako sailburuordea  
Gizarte Zerbitzu eta Etxebizitza Saila - Eusko Jaurlaritza

Politikoki egiten ari den lanari, agente ezberdinen partehartzeari, interinstituzionalki egindako akordioari, profesioarekiko konpromezuari eta gizarte mailan ematen ari garen bultzadari esker, euskal gizarte zerbitzuetako legea lantzen ari gara, honetaz gain, Euskal Autonomi Erkidegoko gizarte zerbitzuetan inplikaturik dauden hainbat sektoreen adostasuna isladatzen duen testu bat ere badago.

Gizarte zerbitzuetako istorioa Euskadin (beste leku batzuetan bezala), programa ezberdinen nahasketaz osaturiko istorioa da (etxez etxeko laguntza zerbitzua, residentzi zerbitzuak, udaletxeetako gizarte zerbitzuak, giza heziketa eskuhartzerako ekipoak...), instituzio eta elkarte ezberdinek kudeatzen zituzten eta askotan kolektibo ahulentzako itxita eta pentsatuta zeuden. Arretan eta lan baldintzetan kalitate maila handiko zentru eta zerbitzuak funtzionatzen dute, azken bi asignatura hauetan gabezi nabarmenak dituztenekin batera.

Jende askoren ahaleginez beteriko istorioa da aldi berean; giza entitateen edota sektore publikoen langileena, gizarte zerbitzuen arreta behardunen kolektiboen sendiena, sentsibilate maila handiagoko politikoena... Istorioaren garapena, batez ere, azken urteotan, menpekotasunean dauden hirugarren adinekoei gizarteak eskeinitako euskarrian (baina ez bakarrik hontan) izan du bultzada.

Gizarte testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak legez dagokion papera jokatzeko saiatzen ari da, hala nola, euskal gizarte zerbitzuak lideratu eta koordinatzearena. Eta gizarte zerbitzu lege berri bat behar dela argi eta garbi ikusi dugu. Eta sektore politiko, profesional, sindikala, instituzionala, elkarte, laborala eta gizartearen laguntza eta konplizidadearekin landu dugu, gizarte zerbitzuen ahultasunarekin bukatu behar gure elaren ustarekin eta ongizate sistemaren barne egon behar den gizarte zerbitzu sistema estrukturatu eta indartuta dagoen bat sortzeko.

Gure erabaki partekatua, euskal gizarte zerbitzuetako lege berria, gizarte zerbitzuetako euskal sistemaren ordezkari izatea dugu helburu nagusizat, euskal gizarte zerbitzuen sistema ongizate sailaren zutabe bilakatzea hala nola, eta hezkuntza edota osasun arloak duten garrantzia, indar mailara eta herriak hauekiko duten onarpen mailara iritsi ahal izatea. Honen ondorioak herritarren bizi kalitatea (batez ere zailtasun gehiago dituztenena), lanpostuen sorrera, gizon eta emakumezkoen arteko berdintasuna, estatu mailako ongizatea finkatzea eta kohesio soziala gertatzea ezinbestekoa dira.

Guzti honek gizarte zerbitzuen ereduaren aldaketa bat dakar, eta orain arte eskeintzen ziren prestazio eta zerbitzuak, instituzio ezberdinen (udaletxe, diputazio eta gobernu) esfortzuren menpe egotetik kanpo gelditzera pasako gara eta euskal gizarte zerbitzu sistemaren eraikuntzara paso emango diogu, honi esker, instituzio

ezberdinak koordinazioan Euskal Autonomi Erkidegoko herritarren eskubideak bermatuko dituzte berdin. Paradigamaren aldaketa baten aurrean gaude beraz, azken hau adostutako testuan jasota dagoelarik:

1. Gizarte zerbitzuetarako eskubide subjeliboa bermatzea, auzitegiak exijitzea, kasuan kasuko, banakakoak edota kolektiboki eskatuta.
2. Aurrez aipatutako eskubidea bermatzea Euskal Autonomi Erkidegoan enpadronatutako banakoen artean berdintasunean.
3. Gizarte zerbitzuen unibertsalizazioa, prebentzioa eta sozialki (autonomi eta integrazio arloetan) eman daitezkeen beharrak erantzutera zuzenduta dagoen eta herritarren bizi ziklo osoan eskeintzen den zerbait bezala ulertuta.
4. Testuan, lanean dauden eta gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta eginkizunen legea eranstea.
5. Osasun, hezkuntza, etxebizitza, lan arloetaz eta diru sarrera bermatzeaz arduratzen diren sistema edota babeserako politikekin konplementatzea eta koordinazioan aritzea.
6. Eredu komunitarioaren, gertutasun zerbitzuen, kasuen gestioen, eskuhartze jarraipenaren eta orokorra eta pertsonala den lehen mailako arretaren alde egitea eta guzti honek pertsona bakoitza duen beharretara erantzutea antolatuta dagoen bigarren mailako arretarekin koordinatuta egotearen alde apostu egitea.
7. Euskal gizarte zerbitzuetako Sistemaren katalogoa, beranduago dekretuaren bidez garatuko dena, dagokion prestazio eta zerbitzuaren karteran, azken honekin herritar guztien eskubideak Euskal Autonomi Erkidego mailan homogeneizazioa bilatzea du helburu, eskubideak jasotzeaz gain eskubide hauek izateko izan behar diren ezugarriak berdinak izan beharko dira ere.
8. Interinstituzionalki koordinazioa bilatzen duen sistemak euskal gizarte zerbitzuetako sistemaren aktuzioen bateratzea eta homogeneitatea bermatuko ditu eta interinstituzionalki duen gidaritzarekin, azken funtzio hau instituzio bakoitzean dauden maila ezberdinetan betetzen duen paper garrantzitsuarekin eta funtzionamendu deszentralitatearekin konpartitzen du, guzti hau testuak onartzen den ikuspuntu komunitarioarekin bat dator.
9. Gizartearen babesa bilatzen duen gaur eguneko sistema baten kudeaketarako mekanismoak, hala nola: konpartitutako plangintza estrategikoa, gizarte zerbitzuetako mapa, informazioaren sistema edota Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren kalitatearen behatokia. Mekanismo hauek, koberturaren, intentsitatearen, ratioen, profesionalizazioaren... hobekuntzaren alde egitera ahaleginduko dio Eusko Jaurlaritzari.
10. Elkarriketa sozial eta zibilerako sistema eta organu berriak, eta azken finean, erabiltzaile diren pertsonen, lengileen eta herritarren partehartzea Gizarte Zerbitzuetako zentruetan eta Euskal Gizarte Zerbitzuen sisteman, gizarte zerbitzuetako arretan eta empleguaren etengabeko hobekuntzaren bila.
11. Kontzertatutako gizarte zerbitzuen sarearen eraikuntza, honek, historikoki eta gaur egun Euskal Autonomi Erkidegoan gizarte ekimenak gizarte zerbitzuetan jokatu duen eta jokatzen ari den paper garrantzitsua

erakusteko eta indartzeko, entidade hauetan lan egiten duten langileen lan baldintzak hobetuz.

12. Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen partehartze ekonomikoaren limitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko etxebizitzaren batzbesteko balioaren portzentai bat ordaintzeko libre egongo direlarik.

Proposamen hau euskal insituzioak gizarte zerbitzuen alorrean eta presupuestoei dagokionez, azken urteetan gertatzen ari diren igoerengatik sostengatuta dago, eta aurrerantzean ere igoera hauek egiten jarraitzea konprometitu dira.

Gizarte hezitzaileak eta hauen elkargo profesionala, Gizarte zerbitzuentzako eta ongizatearen estatuaren beste hainbat zerbitzuentzako lehen mailako garrantzia duen kolektiboa dena, aktiboki partehartu dute eta seguraski horrela jarraituko dute orain arte hitzegin dugun gizarte zerbitzuen aldaketan. Guzti honengatik lege berri hau bultzatzen eta laguntzen jarraitzea animatzen zaituztegu, gure gizarteak dituen erronkei aurre egin ahal izateko.

## **EAEko Gizarte Zerbitzuen Lege aurreproiektua araudi berrikuntzaren testuinguruan. Alderaketa idazpena**

Helena Sotelo  
SIIS

EAEko Gizarte Zerbitzuen Lege aurreproiektua araudia berritzeko estatuaren testuinguruan sortu zen. Haren jatorria 2003an koka daiteke, orduan argitaratu baitzen gizarte zerbitzuen lege asturiarra, hain zuzen ere lehenengo aldiz gizarte zerbitzuen eskubide subjektiboa aipatu zuena. Aitzitik, baieztatu eta sendotu egin zen Nafarroako, Kataluniako eta Kantabriako gizarte zerbitzuen lege berrien onarpenarekin, euskal aurreproiektua lantzen ari zen garai berdinean.

Ekimen horien oinarrian guztiek komunean zituzten faktore ezberdinen eragin bateratua eta autonomia erkidego bakoitzari eta gizarte zerbitzuen sare bakoitzari berriaz uztartutako faktoreak egon ziren. Lehenengoan artean, batetik, gizarte beharren aldarazpen nabarmena –eragin handiko gizarte aldaketetatik eratorrita aldi berean– eta horiekiko gizarte zerbitzuen sareen eboluzioan sumatzen den egokitzapen falta argia egon ziren. Bestetik, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonen Arretarako abenduaren 14ko 39/2006 Legearen eragin katalizatzaile nabarmena egongo litzateke. Araudi berrira daramaten berriazko faktoreen artean, aipatzekoak lirateke Euskadiri dagokionez gizarte zerbitzuen sareak sistema modura duen antolamendu eskasetik eratorritako gabeziak; hori bereziki islatzen da lurralde arteko desoreketan eta koordinazio zailtasunetan, bai sarearen barruan, bai beste babes eremu batzuei dagokienez.

Araudiak ateratzerakoan nolabait batera aritzeak eta eskubideak onartzerakoan orientazio komuna izateak, ordea, ez du esan nahi orain dela gutxi onartu diren testu autonomikoek izango duten helmena berdina izango denik kasu guztietan. Nahikoa da idazpen laburra egitea zabalera babeslearen gaineko bi alderdi adierazkorren gainean –eskubidearen titular diren biztanleak eta eskubide subjektiboaren barruan egongo liratekeen prestazioak–. Ikuspegi horretatik begiratuta, euskal testua da, egungo bertsioan, babes gehien bermatzen duena. Batetik, eremu subjektiboa definitzeari dagokionez, Aurreproiektuak erreferentziako egoera modura hartzen du euskal udalerrri batean erroldaturik egotearen

inguruabarra, betekizun hori Europar Batasuneko Estatu kideetako pertsona nazionalei aplikatzera mugatu gabe testu nafarrak edo kataluniarrak egiten duten moduan. Aldi berean, ez du aipamenik egiten inolako atzerritartasun legeren gainean, ezta bizitokiaren eskakizunaren gainean ere EBtik ez datozen atzerritarrentzako. Aplikazioaren eremu materialari dagokionez, euskal testua da eskubide subjektiboa Katalogoan bildutako prestazio eta zerbitzuen multzoari zabaltzen diona. Asturiasen, Kantabrian, Katalunian eta Nafarroan, aldiz, bereizketa ezartzen da bermaturiko prestazioen eta bermaturik ez daudenen artean, eta lehenengoak bakarrik egongo lirateke eskubide subjektiboaren babespean.

Hala eta guztiz ere, egia da alde horiek ez direla, halabeharrez, behin betikoak. Euskal testua izapidetze bidean dago, eta, ondorioz, izan daiteke oraindik aldarazpenen xede izatea. Horien garrantzia ikusita, horiek jasotzeko eskubidea duten pertsonak mugaketak jasan ditzakete. Gainera, bost arauak araudi garapenera daramate zerbitzu eta prestazio ezberdinen berariazko edukiarren definizioa, horietara iristeko betekizunak bezalaxe. Bi elementu horiek izango dira, benetan, gizarte zerbitzuen eskubidearen eremua mugatuko dutenak. Ondorioz, itxaron egin beharko da Gizarte Zerbitzuen euskal Lege berria onartu eta zerbitzu eta prestazioen sorta autonomikoak arautu arte, alderaketa ikuspegitik bakoitzaren helmenaren gainean hitz egin ahal izateko.

## **Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Lege berria**

Fermín Martín  
Gizarte Hezitzailea

Lehenik eta behin, zorionak eman behar zaizkie parte-hartze prozesu ezin hobearen barruan estreinatzen ari garen Gizarte Zerbitzuen Lege Aurreproiektuaren garapena ahalbidetu duten agente, talde, herri administrazio eta erakunde pribatu guztiei. Lege Aurreproiektu aurreratua da, eta, esplizituki, EAerentzat gizarte zerbitzuen eredu unibertsala eraikitzeke funtsezkoak diren alderdiak biltzen ditu. Herritarren eskubide subjektiboan oinarriturikoa da, erroldaturik egotea titulartasunaren oinarritzko elementu modura. Zerbitzuen erabilera normalizatua, sektorearen arautzea herritar guztiei onartzen zaie, eta tokiko eta komunitateko izaera argia dute.

Lege aurreproiektuaren aurrean, gizarte hezitzaileok funtsezko gaien aurrean aurkitzen gara. Horiek, gure ustez, aurreproiektu honek irudikatzen ditu, eta inplizituki jorratzen saiatzen da artikuluen sorreran eta funtsean. Hala eta guztiz ere, legearen garapenetik eta aplikaziotik esplizitu bihurtzea espero eta nahi dugu, hain zuzen ere etorriko diren dekretuetan, katalogoetan eta prestazio eta zerbitzuen sortan.

Gauzak horrela, legea esplizitua bihurtzeko beharra azpimarratu behar dugu, alegia, gure lana lehen mailako arretako zerbitzuetatik eta zerbitzu espezializatuetatik (hemendik aurrera bigarren mailako zerbitzuak) garatzen aritu garen profesionalen ibilbidea eta garapena onartzea. Argi dago aspalditik hona gizarte hezitzaileek gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko programa eta zerbitzu ezberdinen barruan garaturiko lana eta jarduna zein izan den, bai esku-hartze zuzenaren mailan, bai gizarte eta hezkuntza esku-hartzeari uztarturiko ikuspegi eta irizpide metodologikoetatik sorrera teknikoarekin, kudeaketarekin eta proiektuen garapenarekin zerikusia duten alderdietan. Ondorioz, ez da harrizkoa azken urteotan gizarte zerbitzuetan jardun duen gizarte hezitzaile kopuruak gora egin izana, gizarte eta hezkuntza praktika eta arretan erreferentziako irudi bihurtuz

gizarte langileekin batera, azken horiek sistema horren enborreko profesionalak izaki historikoki.

Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko Legea dekretu eta araudi ezberdinetatik garatu eta aplikatzeko, beharrezkoa izango da oinarritzko ildo batzuk biltzea, gizarte zerbitzuen gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak benetan eranstea posible izan dadin. Hori dela eta, espero dugu garatzen den zerbitzuen mapan ezarrita geratzea gutxieneko hezitzaile kopurua zein den udalerrri bakoitzerako edo gizarte zerbitzuen zentro bakoitzeko. Uste dugu hezitzaile bakoitzarentzako ratioa lanaldi osoan 500 biztanlekoa izan behar duela (irizpide ezberdinak ezarriz hondatutako zonaldeetarako eta landa esparruko zonaldeetarako), bi hezitzaile lanaldi erdian 15.000 biztanleko bestela, eta hori gutxienekoen abiaburua izango litzateke gizarte eta hezkuntza esku-hartzea gizarte zerbitzuetan sartzen eta unibertsal bihurtzen hasteko. Gutxienekoen ratio hori gaintzen arituko lirateke EAeko udalerrri eta errealitate batzuetan. Horrelako gutxieneko ratio batzuk ezartzea, abiaburu gisa, udalerrri bakoitzaren gizarte errealitateari eta gizarte eta hezkuntza beharrei egingo zaien azterketa eta diagnostikoaren mendekoa izango da. Horren bidez, posible izango da horietako bakoitzean ezarri beharreko gizarte ekimenen erantzunak egokitzea eta doitzea.

Gizarte hezkuntzaren alorreko profesionalen gizarte eta lan baldintzen ezaugarriak biltzen dituen egungo esparru eta errealitatearen barruan (ekimen pribatuko, gizarte ekimeneko edo irabazi asmorik gabeko erakundeen kanpoko kontrataziotik), lege berriak hobekuntza elementuak ekarri eta ahalbidetu behar ditu, horien bitartez gure lanaren garapenean diharduten langileen lan baldintzak ziurtatu eta bermatzeko, jarduera horiek garatzeko gaitasuna eta kaudimena bermatzearekin batera. Horretarako, beharrezkoa izango da egun herri administrazioek gizarte ekintzako zerbitzuak eta programak kontratatzeko duten eredia berrantolatzea eta berriro arautzea, eta horrek guztiak administrazioaren azken erantzukizunearan kokaturiko esparru berria ekartzea. Erantzukizuna izango luke zerbitzuen eta gizarte esku-hartzeen kalitatearen eta emaitzen gainean, eta osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta abarren arloan duen erantzukizunaren parekoa izango litzateke. Azken batean, itunpeko horizonte argia lortzea litzateke xedea, eremu publikoko profesionalen gizarte eta lan baldintzekiko oreka gehiago bultzatuz.

Beharrezkoa da lege berriak berekin ekartzea gizarte eta hezkuntza praktikaren onarpen teknikoa eta metodologikoa gizarte zerbitzuen partetik. Gizarte hezitzaileen lanbide garapenetik eta urte hauetako esperientziatik lan egin da, eta oinarri teoriko-praktiko zabala sortu da gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak garatu eta ezartzeko. Horrela, hori guztia beste irudi eta lanbide jardun batzuk garatutakotik bereizten eta osatzen joan dira, ikuspegi eta emaitza berriak erantsiz gizarte zerbitzuetatik emaniko arretan. Komenigarria litzateke jakintza eta esperientzia oinarri hori lege berrian jasotzea, gizarte esku-hartzea (eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzea batez ere) kokatuko duten gidaliburu, protokolo, liburu zuri, eta abarren bitartez. Horrela, laneko metodologia ezberdinak jarriko lirateke, gizarte zerbitzuetatik garatutako gizarte eta hezkuntza esku-hartzeei kalitate, irizpide eta batasuna emanez. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da garrantzitsua dela Legeak ikuskapen altuko elementua jasotzea, legearen beraren, helburuen, irizpideen eta metodologiaren aplikazio egokiari laguntzeko, orientatzeko eta bermatzeko ardura izanez.

Egun irekita dagoen prozesuan, Lege Aurreproiektua Gizarte Zerbitzuen Euskal Legerantz irekitako leihoa da, eta bertan gizarte hezitzaileek baiezkoa eman besterik ezin dugun alde batzuk bildu eta zehazten dira. Hala eta guztiz ere, lehen ere adierazi dugun moduan, bereziki garrantzitsuak eta funtsezkoak diren aldeak faltako lirateke, gizarte hezkuntzaren profesionalak lehen eta bigarren mailako

gizarte zerbitzuetan behin betiko kokatzeko, batetik, eta, bigarrenik, gure lanbide jarduna gauzatzeko esparru eta testuinguru profesionala jartzeko.

## **EAEko gizarte zerbitzuen egoera eta etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen Legea, Gizarte Langileen ikuspegitik**

Gizarte Lanetan Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Gipuzkoako Elkargo ofiziala – Colegio oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa

Gure eginbeharra Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko Legearen gainean, haren oinarrian egon beharreko araudiaren gainean hain zuzen, gure iritzia ematea bazen ere, kontuan izan behar da Gizarte Zerbitzuen euren egoera zein den. Hori dela eta, orrialde honen edukia Gizarte Zerbitzuen egoeraren gaineko pintzelkada arinak ematean oinarrituko dugu, horiek etorkizuneko Legearekin uztartuz. Orrialde BAKARRA idatzi beharrak gure azterketa jakinarazteko benetako aukerak gehiegi zaildu dituela adierazi behar dugu.

Aztertzeke funtsezkotzat jotzen ditugun gai nagusiak honakoak dira:

- Uste dugu lau **parametro edo binomio daudela, eta Gizarte Zerbitzuen Sistemak horien gainean jardun beharko lukeela:** AUTONOMIA/MENDETASUNA; BABESA/BABESGABETASUNA; BAZTERKERIA / BAZTERKERIA EZA; PARTE-HARTZEA/ONARPENA.
- Funtsezko eta oinarritzko premisa batetik abiatzen gara: beharrezkoa zen egungo Lege Aurreproiektuak EAEn **GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA sortzeko** oinarriak definitu eta zehatz zitzala. Legeak, azkenean, aipamen egiten dio Sistemari berari, nahiz eta modu **orokor** eta **zehaztugabetzat** jo daitekeen eran. Izan ere, ez dio aipamenik egiten lurralde arteko berdintasuna bermatuko lukeen komunitate osoaren mailan egitura funtzional bakarra izango litzatekeenari.
- Gizarte Zerbitzuen Sistemak **gutxieneko eskubide subjektiboak zeintzuk diren definitu eta bermatu** behar ditu. Horiek bere kudeaketa zuzenetik bete beharko lirатеke, hain zuzen ere: Gizarte Zerbitzuetara iristea, babesgabetasun balorazioak, babesgabetasunaren gaineko tutoretza zentzurik zabalenean (adin txikikoak, adinekoak...) eta kudeaketa pribatuaren gaineko kontrola, hau da, ikuskapena, baimena eta homologazioa. Horretarako, kudeaketa publikoaren kontrol egokirako ebaluazio eta ikuskapen bide egokiak erabiliko lirатеke.
- Badira sistema publikotik bermatu behar diren beste eskubide subjektibo batzuk ere, nahiz eta itunduta egon daitezkeen. Hala eta guztiz ere, uste dugu beharrezkoa zela **estaldura mailak zeintzuk ziren definitzea**.
- Beharrezkoa iruditzen zaigu **zeharkako plangintza estrategiak landu eta ezartzea**, helburu gisa herritarrarentzako arreta egokia eta baliabideen kudeaketa ona izanez. Legeari dagokionez, Osasun Sistema bakarrik aipatzen da, eta, adibidez, hezkuntzarena bezalako beste batzuk ahaztu dira.

Azpimarratzekoa da egungo ereduak agerian utzitako gaitasun falta; izan ere, etengabe zalantzan jartzen ari gara zer egiten den, nola egiten den, norantz goazen, eta abar, eta horrek inoiz ez gaitu eraman Sistema egoki definitzera baliabide egokiak emanez.

Uste dugu Lege Proiektuak aukerak jaso dituela, badirudi "ahal izan dena" egin dela, kontuan izanda erakunde eta eskumen sareak ekartzen dituen zailtasunak eta, ondorioz, EAEn dagoen kudeaketaren emaitza.

## Elkar Hizketak

Ainhoa Martín  
Gizarte Hezitzailea

### **Lan egiten duzun programaren izena eta garatzen den lekua:**

Beasaingo Ingurune Irekiko Programa

### **Programan duzun urteko esperientzia:**

6 urte (2002ko martxotik)

### **Programaren hartzaileak eta helburua:**

Arrisku eta moldagabezi egoeran dauden Beasaingo adingabe eta gazteak normalizatutako inguru eta baliabideetan- herritar guztiei zuzendutakoak- eta baliabide egokitueta ( bikote taldeak, familia, ikastetxea, lan merkatua, kalea, baliabide komunitarioak....) txertatu ahal izatea da programaren helburua.

### **Gizarte zerbitzuak zure lanean ze papera jokatzeko dute? (non kokatzen da, antolaketa, ardurak...)**

Gizarte zerbitzuen barruan kokatzen da programa eta programa aurrera eramaten duten profesionalak- kale hezitzaileak- , beraz gizarte zerbitzuekin harremana oso estua da eta zentzu honetan gizarte zerbitzuak eta udala azken finean programaren azkeneko arduradunak dira. Antolaketa mailean, gizarte langileekiko harremana eta koordinazioa oso altua eta funtsezkoa da. Hezkuntza proiektuak elkarbanatzen dira eta eskuhartzeako orientazioak eta helburuak eginbeharrekoekin batera adostu eta banatzen dira.

### **Lanean hasi zenuenetik gaur arteko prozesua nolakoa izan da?(plangintza, erabakiak, kasuen gestioa,...)**

Hasiera batean ezagutze prozesu bat izan zen, bai gure aldetik gizarte zerbitzuetako funtzionamendua, programak... ezagutzea eta bestaldetik gure programa eta figura ulertaraztea eta kokatzea hauen barruan. Erlazioa hasieratik oso positiboa eta irekia izan zen eta elkarrekin eraikitako bidea oso aberasgarria izan da zentzu guztietan, azken finean programaren eta aurrera eramaten duten profesionalen beharra ongizate sailaren barruan sentitzera iritiz. Horrela taldean funtzionatzen eta ongizate barruan era koordinatuan lan egiten ikasi dugu plangintza, erabakiak eta kasuen gestioa erabat elkarbanatuz eta osatuz.

### **Eraikitako harremanean ze klabeak nabarmenduko zenituzke?(gaur egun zure lanaren hobekuntzarako erabiltzen dituzun klabeak edo prozesuan funtzezkoak izan direnak)**

Uste dut garrantzitsua harremana prozesu baten barruan ikustea izan dela, eta zentzu honetan prozesu guztiak bezela bere denbora behar izaten dute. Hau da, gure programaren helburua erabat lortzeko ongizate profesionalen beharra funtsezkoa denez klabea izan da hauekin gure lana elkarbanatzea. Horrela, elkarbanatze prozesuan oso garrantzizkoa da presentzia edukitzea, eta honekin esan nahi dudana profesionalekin egotea da (fisikoki sailaren barruan egoteak ere asko lagundu dezake).

Gure ibilbidean Ingurune Irekiko Marko Teorikoa izateak ere gure programaren garapenean eta ongizate sailaren integrazioan lagundu digu, gure laneko norabidea zuzenduz, elkarteko koordinadoreekin eta konsortzioko aholkulariarekin batera. Baita gizarte zerbitzuetako arduradunaren papera garrantzi handia izan du gure figuraren integrazioan, sailaren barruan eta baita udaletxe barruan kokatzeko. Gaur

egun harreman hau indartuz doa eta klabe berdinak erabiltzen ditugu, bidea bestekin batera egin behar dugu.

***Ze aspektu hobetu daitezke? (Zuzeneko eta baita zeharkako arretan lagundu dezaketenak)***

Gure programa ondo garatzeko eta aurrera eramateko "harremana" dugu tresnarik garrantzitsuena bezela gure "persona"ren bitartez garatzen dena. Horrela profesionalen estabilitadea izugarritzko garrantzia dauke. Honekin lotuta eta hobekuntza bezela programen eta profesionalen estabilitadeari begira izugarritzko garrantzia dauke profesionalen egoera zaintzea (programaren bolumenagatik eskatzen den dedikazioa izan, kondizio ekonomikoak, programaren errekonozimendua, baliabideak...)

***Zure iritziz gizarte zerbitzuetako lege berriarekin ze aldaketak emango dira Gizarte Hezitzaileen eta Ongizate Sailaren arteko harremanetan?***

Nire ustez alde batetik ongizate saileko programak eta hauek aurrera eramateko profesionalen perfila eta konpetentziak zehaztuko ditu, horrela programak eta profesionalen kokapena erreztuz eta argituz, eman behar diren prozesuak erreztuz eta profesional bakoitzaren papera errefortzatuz.

Boni Diaz  
Gizarte Hezitzailea

***Lan egiten duzun programaren izena eta garatzen den lekua:***

Arrisku egoeran aurkitzen diren haur eta nerabeak (4-18 urte bitartekoak) dauden Harrera Etxe bateko programan egiten dut lan.  
Errekurtsoa Mungiako herrialde txikian kokaturik dago, Bilbotik 15 kilometrotara.  
Errekurtsoaren izen ofiziala "Mungiako Etxe Funtzionala" da.

***Programan duzun urteko esperientzia:***

1996an etengabeko etxeetan, etxeen sareko bilakatzea eman zenetik ari naiz lanean errekurtsu honetan.

***Programaren hartzaileak eta helburua:***

Ezaguna den bezela, Harrera Egoitzen helburua ardura integrala eskeintzea da; jasotzaileen behar materialak, afektiboak eta hezigarriak ezin direlako eskeini beraien inguru familiarraren bitartez denboraldi horretan behintzat.

***Gizarte zerbitzuak zure lanean ze papera jokatzen dute? (non kokatzen da, antolaketa, ardurak...)***

Gure erlazioa Zerbitzu Sozialekin zehazturik dago, orokorrean Harrera Egoitzan dagoen kasuaren inguruan dauden koordinatzaile desberdinen bitartez, zeintzuk aldi berean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan detektaturik, Bizkaiko Diputazioko Gizarte Ekintza Departamentuaren (haurtzarora) bitartez jasotzen dituztenak.

***Lanean hasi zenuenetik gaur arteko prozesua nolakoa izan da? (plangintza, erabakiak, kasuen gestioa,...)***

Piramide formako erlazio honetan, gure papera kudeaketa edo programaren betetzea da nagusiki, baina urteetako esperientziak esaten digu, bai Harrera Etxeko esperientziak eta batez ere gaitasunak, sendotasunak eta gure Hezitzaile Taldearen ardurak, lanaren osotasunean parte hartzaileagoak egiten gaituela planifikazio eremuetan, erabakiak hartzerakoan..., beti ere eremu zehatz bakoitzaren ardurak errespetatuz.

***Eraikitako harremanean ze klabeak nabarmenduko zenituzke?(gaur egun zure lanaren hobekuntzarako erabiltzen dituzun klabeak edo prozesuan funtzezkoak izan direnak)***

Guztiz garrantzitsua iruditzen zait eragileek, bakoitzaren autonomia errespetatzea dagokion jokabide eremuan. Koordinazioaren emaitza, jakintza desberdinen eta jokabide autonomoen baturak izan beharko luke, eta era berean edozein prozesuaren dinamika eragile berriak eta ez askotan gertatu ohi den bezala "kontuak eta esplikazioak eskatzeko" ohitura estamentu bati ("beheko edo azpikoari"?) bere aurrekoa edo ondorengoa den (eta ez gorago dagoena) beste baten partetik erabakiak hartzeko garaian.

"Aurkikuntza", norberaren gauzak..., gutxitan Gizarte Ekintzarekin zerikusia daukaten alderdi hauek, askotan eragile erabakitzailleetan bihurtu ohi dira. Agian, bitxia gerta daiteke "demokratizazio" handiagoa eta zerbitzuak kudeatzen ditugunon "burokratizazio" txikiagoa eskatzea, baina bide horretatik ere aurkitu daiteke (gero eta gehiago dauden) errekurtsoen eraginkortasuna.

***Zure iritziz gizarte zerbitzuetako lege berriarekin ze aldaketak emango dira Gizarte Hezitzaileen eta Ongizate Sailaren arteko harremanetan?***

Azken eskakizun honi ezin diezaioket erantzun, nahiz eta saiatu arren (seguruenik ez gehiegi), ez dut heltzerik izan Gizarte Zerbitzuetako anteproiektu lege berrira. Hala ere, ziur nago legeek laguntza eskeintzen duten arren, orokorrean gizarte ekintzako eremura lehenago iritsi direnen borondatearen arabera izango dela Gizarte Hezitzaileen determinazioarekin batera; seguru gaudelarik guztion betebeharrak eta jakintzak beharrezkoak direla.

## **GAIAK**

### **"Gizarte babesgabetasun egoeran dauden Haur eta Nerabeen Egoitza Harrerarako Baliabideen Dekretu Arazteari" buruzko aipamena**

Daniel Rubio  
Gizarte Hezitzailea

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak landutako "Gizarte Babesgabetasuneko Egoeran dauden Haur eta Nerabeen Bizitoki Baliabideak Arautzeko Dekretuari" egindako ekarpenek Dekretua areagotu dute hamar orrialdetan, eta kalitatea eta irizpide hezitzaileak sendotu dituzte. Nik haren gainean egingo ditut nire ekarpenak.

Hona hemen dekretuaren alde positibo batzuk: haur eta nerabeentzako bizitoki baliabideen eredu ezberdinen arreta jarraibideak arautzen, definitzen eta zehazten ditu bakoitza bere aldetik; hiru lurraldeetako esku-hartzea harmonizatzen du; funtzioak argitzen ditu; protokoloak ezartzen ditu; esku-hartzeak denboran kokatzen ditu eta programak lantzea, horien gaineko jarraipena egitea eta ebaluatzea eskatzen du; atenditu diren pertsonen eta haiekin lanean dihardutenen eskubideak eta betebeharrak garatzen ditu...; eta, orokorrean, bat etor gaitzkeen diskurtsoa garatzen du.

Hain onak ez diren alderdiak, berriz, honakoak izango lirateke: alor guztietan gertatzen den bezala, dekretu honetatik ere "bainak" edo "hala eta guztiz ere" erakoak atera daitezke. Definizioz, badakigu legeak eta dekretuak derrigorrez bete beharrekoak direla, adostutako eta gizartean onartutako gutxienezkoak, bizikidetzan,

gizarte justizia eta pertsonen eskubide eta betebeharrak errazten dituen. Praktikan, ordea, baliabideak falta izateagatik, borondate politikorik ez egoteagatik eta beste hainbat inguruabarrengatik, derrigorrez bete beharreko gutxieneko horiek, alegia, legeak, eskura ezin daitezkeen mito bihurtzen dira.

Zentzu horretan dekretuak bizitoki ezberdinetako Hezkuntza Taldeen eraketari emaniko orientazioak kezkatzen nau, kasu bakoitzean atenditu beharreko adin txikiko kopuruak bezalaxe.

Dekretuan hezkuntzaren alorreko langileen funtzioak definitzen direnean, haiekin identifika gaitzke. Hezkuntza Taldeari buruz hitz egiten duenean, laguntzaileak bezalako irudiak agertzen dira. Horiek toki hau partekatzen dute, baina ez da funtzio bereizketarik egiten lanbide profil ezberdinen artean. Badakigu ez prestakuntzaren aldetik, ez kualifikazioaren aldetik profil horiek ez dituztela funtzio berdinak garatzen, baina soldaten aldetik alderdiak agertzen dira: kostuak merketu egiten dira, laguntzaileak kontratatuz gizarte hezitzaileak kontratatu ordez.

Hezkuntzaren alorreko langileak / atenditu den adin txikiko taldea ratioari dagokionez, badirudi berdintzen ari dela egun Bizkaiko Foru Aldundia bezalako herri erakundeetatik egiten ari dena: 13 edo 14 adingabeko eta 7 hezitzaile Oinarrizko Harrera Egoitza batean; aitzitik, dekretu hau eskuan izanda 7 profesional ez eratutako hezitzaile taldera igaroko litzateke: lau edo bost hezitzaile eta bi edo hiru laguntzaile, profil ezberdinduekin, funtzio ezberdinekin, soldata ezberdinekin, eta abar. Talde eraketa horrekin kalte gehien jasoko lukeen alderdia pertsonalizazioaren eta banan banako arretaren helburuarena litzateke: arreta programaren diseinuaren lana gizarte hezitzailearen irudiaren gainean geratuko litzateke, tutoretza eran bi kasuekin lan egitetik hiru edo laurekin lan egitera igaroz.

Edonola ere, kezkarriena orain arte ematen aritu den arreta nolabait galgatzeko duela da. Historikoki bizitokiko harrerak eboluzionatu egin du hainbat alorretan, adibidez tipologian, horitako bakoitzaren masa kentzean, hezkuntza taldeetako langile kopurua areagotzean, ongintza izaera gaintzean pertsonari emaniko arreta globalarengatik ordezkatzean, atenditu diren arazoetan, eta abar. Eboluzio horren ezaugarria pertsonalizazioa izan da, kasu bakoitzean emaniko banan banako tratua, programen sistematizazioarekin batera. Dekretuak hezkuntza taldeak eratzeko ekarritako proposamenarekin, eboluzio hori galgatu egingo da nolabait.

Hala eta guztiz ere, ongiatorria eman behar zaio, kasu askotan modu kaotikoan egindako esku-hartze modua arautzen duelako eta beharrezko literatura jartzen duelako. Gainera, betebeharrak ekartzen ditu guztiontzat: profesionalentzat, herri erakundeentzat, erakunde pribatuentzat, eta abarrentzat. Gure ezagutzei eta egiten jakiteari esker lortuko da honakoa hobetzeko hasiera izatea edota lortezina den helburua bilakatzea.

Beharrezkoa da gizarte hezitzaileok horrelako egoeretan parte hartzea, benetan gure lanbide profila definitzen eta baldintzatzen duten egoerak direlako. Gure dokumentu profesionalizatzaileetan gure burua definitzeaz gain (gizarte hezkuntzaren definizioa, kode deontologikoa, eta funtzio eta eskumenen katalogoa), legeek, dekretuek, kontratazio formula ezberdinek, eta abarrek ere definitzen gaituzte praktikan. Horrengatik, esfortzu berezia egin behar dugu horrelako foroetan egoteko, gure definizioak gure prestakuntza, lanbide eta esker publikoaren errealitatearekin harmonizatze aldera.

**Hezkuntzaren formakuntza hastapenaren etorkizunari begira: Unibertsitate eta Sektore profesionalaren elkarlanerako prozesuaren zertzeladak.**

Zuzendaritza taldearen eta Unibertsitateko departamentuetako ordezkariak: Antonia Amez, Maite Arandia, Peio Apodaca, M<sup>a</sup> Angeles Echevarria, Lola Fernández, Arantza Gogeaskoetxea, Valentín González, Lutxi Larrazabal, Isabel Martínez, Juan de Dios Uriarte, Aritz Uskola.

Gizarte Hezitzaileen Elkargoko ordezkariak: Aitor Ávila y Jesús Otaño.

Ikasleen ordezkaria: María Fernanda de Vasconcelos.

SAEren ordezkaria: Gurutze Maguregi.

**Gizarte Hezkuntzako formakuntza hastapenaren inguruko hausnarketa prozesua.**

Goi mailako ikasketen Europar espazio bat sortzeko 2010ean amaitu beharko den. aldaketa prozesu batean aurkitzen da Unibertsitatea. Aldaketa honen helburua ikasketak europar mailan baliokidetzera da, edozein estatuko unibertsitatean lorturiko titulua beste edozein herrialdetan baliagarria izan dadin. Boloniako Akordiotik eratorritako aldaketarik garrantzitsuenetakoa orain arteko unibertsitateko tituluen kategoriak, diplomatura eta lizentziaturak, desagertzea dakarrela da. Hauek kategoria bakar batean batuz, lau urteko iraupena duten "Gradua izena hartuz.. Diplomatura "gradu bilakatzeak titulatu hauek, eta orain arte ezinezkoa zitzairen, 3. zikloko ikasketak egitea ahalbidetuko du. Proposamenaren beste aldaketa garrantzitsu bat irakasgaiei dagokiena da, gaitasun akademiko, gizarte gaitasun eta gaitasun profesionalen lorpenean oinarritzera pasako dira, irakaskuntzako aktore desberdinen, irakasle naiz ikasleen, paperean aldaketak suposatuz.. Irakaskuntza prozesuaren kontzeptzio desberdin bat dakar, ikaslearen protagonismoa indartzen duena eta irakaslea jakingaien bideratzaile moduan kokatzen duena.

Artikulu labur honen helburua, prozesu hau EHU nola gauzatu den azaltzea da, Bilboko Irakasle eskolan Gizarte Hezkuntzaren titulazioan zehazki. Aldez aurretik esan nahi dugu konbergentziak eskatzen dituen egitura mailako aldaketaz gain, lan hau Gizarte Testuinguruan eman diren aldaketak kontuan hartu eta. Gizarte Hezkuntzaren ikasketen hastapenak nolako aizan beharko lukeen berdefinitzeko aukera moduan ulertu dela.

Euskal Herriko Unibertsitateko Kalitate eta Irakaskuntza Berrikuntzako Erretoreordetzak, Irakaskuntzaren Berrikuntza Bultzatzeko Programa (IBP) martxen jarri du, titulazio berriek izan beharreko Gaitasunak, jakingaiak, formakuntza motak eta karrera osoaren ebaluaketa prozesuaren inguruan gidak sortzeko, laguntza eta asesoramendua eskaintzeko helburuarekin. Helburu honekin zentro desberdinetan batzordeak eratu dira "Titulazioen Proposamenak garatzeko. 2006ko Abenduaren 21eko MEC-ren dokumentuko irizpideei jarraituz eta 2007/06/26ko Errege lege-dekretuaren zirriborrotik eratorritako aldaketek kontuan izanik, hauetan Unibertsitate ikasketen antolamendua ezartzen baita.

Gizarte Hezkuntzako titulazioaren diseinurako batzordea 2007ko martxoaren 30ean eratu zen. Harturiko lehen erabakiak lan egiteko modua zehaztea eta hasierako taldea (Oinarrian irakaslez, ikasleren bat eta Kalitate Katedrako eta Irakaskuntzari Laguntzeko zerbitzuko pare bat aholkularik osatua) handitzea izan ziren, gizarte ordezkariak handiago aizan zezan eta batez ere beren pentsamenduak ezagutzera eman behar dituztenen ahotsak ere bertan izateko. Guretzat oso garrantzitsua izan zen ikasketa plan berria Gizarte hezkuntzaren lan alorrean diharduten eragile eta subjektu desberdinen akordio zabalean oinarritzea. Horregatik Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoari lant aldean modu egonkorrean

integratzeko eskaria egin genion Profesionalen esperientzia eta ahotsa bertaratzeko.

Prozedurari dagokionean bi akordiori eutsi genien. Lehenegoak Batzordearen lan metodologiari dagokio. Gure kasuan hiru aspektu lehenetsi ditugu: komunikaziorako, hausnarketarako eta eraikuntzarako kolektiborako prozesu bat sortzea. Guretzat ez da soilik eskaturiko lana izan garrantzitsua, gure ezaguera profesional eta energia guztiak jar genitzakeen eta identifikatu gintezkeen proiektu komun batean sartu eta *talde sentimendua* eratu ahal izatea izan da guretzat garrantzitsuena. Prozesuaren hasieran eta amaieran *Difusio Plan* bat zehaztu da titulazioarekin erlazionaturiko gainontzeko irakasle eta ikasleak kontuan hartuz, batzordean emandako pausoen berri eman eta hauek alderatzeko eta zentroaren talde konbergentzia lortu ahal izateko.

Bigarren akordioa egin beharreko lanaren giltzarriak izango ziren gaiak zehaztea izan zen. Gizarte Hezitzailearen perfilaren eta identitate profesionalaren ezaugarriak definitzea, eskuartzeko eremu esanguratsuenak mugatzea eta ikasleek unibertsitate ikasketen amaieran izan beharreko gaitasun orokorrak zehaztea. Jarraian eta modu laburrean agerturiko hiru aspektuen inguruan egindako lana agertzen da.

### **¿Noruntz zuzendu behar dugu formakuntzaren indarra?**

Gizarte hezitzailea, gizaheziketa gaitasunak dituen profesional bat izan behar du bai pertsonekin eta bai kolektiboekin, beraien bizi zikloko etapa guztietan beraien garapena hobetzeko asmoarekin; eta baita garapen profesionalen eragin. Zehatzago honelako profesional batetan pentsatu genuen:

- Erreflexio, ikerketa eta kolaboraziorako gaitasunarekin.
- Heziketa eskuartzearen oinarri teorikoen menperakuntzarekin, gizarte politikan, eta eskuhartze arloarekin erlazioatutako legeriarekin.
- Gizarte eskuhartzeko metodologi eta estrategietan aditua.
- Lan arlo desberdinetan proiektatzeko eta aholkua emateko gaitasunarekin eta harreman hezigarriak ahalbidetuko dituen gizarte testuinguruak sortzeko.
- Egitasmoen, programen, gizaheziketa proiektuen eragile, antolatzaile eta kudeatzailea. Maila indibidualean, kolektiboan, komunitarioan eta instituzionalean ezagutu.
- Gizarte errealitatearen eta bere eskuhartze ingurune desberdinetarako analisi eta ebaluaketarako metodoen ezagupenarekin.
- Gizaheziketa eskuhartzeko bertako politika eta politika globaletan aditua eta garapen profesionalen eskuhartze multidisziplinarreko taldeekin.
- Errekurtsoak garatu eta erabiltzeko gaitasunarekin, batez ere, aro digitaletakoak, eta komunikazio eta informazio sare bideen gizaheziketa programak garatu eta sortzeko prozesuetan aholkatzeko.
- Eskuhartze talde profesionalen garapenean gidatzeko gaitasunarekin

Gizarte Hezkuntzan titulaturakoaren identitatea beraz, ekintza hezitzailearen bitartez lan egiten duen gizarte aldaketako agentea dela esan dezakegu.

### **Non aurkitu daitezke espazio profesionalak?**

Jakitun gara, Gizarte Hezkuntzaren eremuetaz hitz egitean kolektibo desberdinekin zerikusia duten arlo zabal batekin lotzen direla, eta aldi berean alor hauetako bakoitzean aurrera eraman ohi diren mota askotako programekin.

Gizarte dinamismoa ere aintzat hartu beharra dago eta honekin batera eskuhartze eremu berrien estualdiaren aukera. Batzordeak, aipaturakoaren

deskribapen zehatz bat egiteko ahalegina egin du, eta artikulua honen espazio mugatua kontutan izanik laburpen bat egitera beharturik gaude.

Momentu hauetan, Euskal Autonomi Erkidegoan giza heziketa eskuhartzea ondorengo alorretan burutzen ari dela pentsa dezakegu: 1- Babes sistemak (Programak: ingurune irekia, etxeak, egoitza harrera etxeetan, familiarra...), 2- Gaztaroko justizia (14-18 urte bitarteko nerabeak) (ordezko neurriak, erreforma zentruak, askatasun behatua...), 3- Eskuhartzea espazio giza kulturaletan eta aisiaren dinamizazioa (18 urterarteko haur eta nerabeak, 30 urterarteko gazteak, pertsona helduak eta nagusiak) (ludotekak, gaztelekuak, gizabidezko zentroak, aisialdi alternatiboa...) 4- Giza lan txertatzearen eremua (komunitate osoa orokorrean) (lan trebakuntza, hastapen profesionala, giza lan txertatzea, lan orientazioa...), 5- Pertsona helduen etengabeko trebakuntza (alfabetatzea, giza kulturala, etengabeko trebakuntza...), 6- Gizarte arriskuan edo baztertzeko egoeran dauden pertsona helduekin eskuhartzea (ingurune irekia, eguneko zentruak, espetxe zentruak, gutxiengo etnikoak, etorkinak...), 7- Garapen komunitarioa (sustatzea, garapen komunitarioa, bitartekaritza, hiritarren parte hartzea, sentsibilizazioa, gurasoen eskolak, giza dinamizazioa...), 8- Drogomenpekotasunak (eguneko zentruak, egoitzak, komunitate terapeutikoak...), 9- Eskuhartzea pertsona helduekin (eguneko zentruak, babes etxeak, egoitzak...), 10- Eskuhartzea urritasun psikikoa, fisikoa eta zentzumenezkoa duten pertsonekin (egoitza funtzionalak, aisia eta denbora libreko zentruak, giza lanean txertatzeko zentruak...), 11- Ingurugiro hezkuntza (birziklatzea, kontsumo arduraduna, landetxe eskola...), 12- Osasunerako hezkuntza (afektibo sexuala, elikadura/nutrizioa...), 13- Eremu azaleratu berriak (hezitzailea eskola inguruan...)

### **Ondorio modura**

Aurkezpen motz honen ondorio modura ondorengoa azpimarratu nahiko genuke; Gizarte Hezkuntza titulazioko diseinu berriak ondorio asko izango ditu eta lanbidearentzako izugarriko garrantzia suposatuko du, horregatik kurrikulu trebatua proiektatzeko bultzada egin beharko genuke gizarte dinamismoarekin, zientifikoarekin eta dinamismo teknologikoarekin bat egiten duen lanbide sozializazioa bermatuz; unibertsitatearekin egiten den elkar lana eta baita lanbide sektorearekin eta orokorrean gizartearekin egiten dena barneratuz.

Beraz, mota honetako profesionalak trebatzeko beharra ikusten duen gizarte errealitatea daukagu aurrean eta elkarrekin egindako lan ibilbide garrantzitsua daukagu bai unibertsitatearekin eta baita ere sektore profesionaleko ordezkariarekin; zeintzuk burutzen eta garatzen dugun lan teoriko eta praktikoari itxura edo forma emateko aukera eman digute. Burututako ibilbideak esaten digu gure beharra ez dela beharrezkoa etorkizuneko profesionalen hasierako trebakuntzan bakarrik, nahitaezkoa da baita ere sektore profesionaleko etengabeko hezkuntza burutzerakoan eta Gizarte Hezkuntzaren ezagupen zientifikoak sortzerakoan ere. Honako hau da aurretik daukagun erronka interesgarria.

## **Gizarte Hezkuntzako Gidaren prestatzea**

EGILEAK: Bilboko Gizarte Hezkuntzako titulazioaren gida gauzatzeko batzordea.

### **Gaur egun zergatik dago gizarte hezitzaileen premia?**

Egungo gizartean, globalizazioaren gertakaria dela eta, mundializazioa, TIC-en zabalkundea eta garapen zientifiko handia dela medio, Heziketa eskaera handiagoa dago, Kultura, Ongizate soziala, eta baita norbanakoa eta gizarte mailan garatzeko aukerak, baina eskaera hauei guztiei Eskola sistemak berak bakarrik ezin die erantzun.

Alde batetik kulturaren demokratizazioak eta ikasteko eta formakuntza izateko beharra bizitza osora hedatzeak, eta bestetik gaur arte laguntza eremukoak ziren gizazerbitzuak sozio-hezitzaile bilakatzeak, Gizarte Hezkuntzatzat jo dezakegun eskuhartze zabala eskatzen duten beharrizan multzoa sortzen ari da. Alor honetan eskaera hauei egoki erantzun ahal izateko profesionalen formakuntza atzera ezineko egitekoa da.

### **¿Errealitate sozial honi aurre egiteko zein da Euskal Herriko Unibertsitatearen eginkizuna?**

"Birpentsatu" beharrean gaude profesional hauen egitekoaz, Gizarte Hezkuntza Diplomatura 1995. urtean sortu zenetik izan dugun esperientziatik abiatuta eta Gizarte Hezitzaileen Kolegioarekin batera egindako lan bateratzutik, eremu profesional berri honen beharrizaneekin bat datorren unibertsitate tituluaren diseinua egin behar dugu eta Europako Goi Mailako Hezkuntzari egokitua. Bilboko Irakasle Eskolako batzordeak duen xedea titulazio honetako gida egitea da, IIBP izena duen (Ikastegietako Irakaskuntzaren Berrikuntzako Programa) berrikuntza Programan.

### **Zer egin dugu orain arte?**

Zenbait dokumentoren gainean (teorikoak, profesionalizatzailleak, etab..) eta azal dutako beharrizan formatiboen azterketa, bai Gizarte Hezkuntzako Practicuma tutorizatzen duten profesionalen ikuspuntutik eta baita ikasleenetik ere, Gizarte Hezkuntzako IIB batzordean ondorengo galderari eman diegu erantzuna:

### **Zein nortasun behar du Gizarte Hezitzaile batek?**

Bere nortasuna berak abian jartzen duen ekintza soziohezitzailearen bidez. gizarte aldaketa eragiten duen eragile batena da.

### **Zintzuk dira bere esku-hartze esparruak?**

- Haurrak eta nerabeak babes sistematan.
- Nerabeak gazte justiziaren esparruan.
- Esparru soziokulturalak eta aisialdi dinamizazioa.
- Esku-hartze soziorabala.
- Pertsona Helduen etengabeko formakuntza
- Persona Heldu baztertuak edo horren arrisku egoeran daudenak
- Drogomenpekotasuna.
- Hirugarren Adineko Pertsonak.
- Ezindu fisikoak, psikikoak eta sentsorialak.
- Komunitate mailako esku-hartzea.
- Ingurugiro Heziketan esku-hartzea.
- Osasun. Heziketan esku-hartzea.

### **Bere formakuntzak zeintzu ezaugarri ditu beharrezko?**

Hezkuntza Zientzien ezagutzan oinarritutako unibertsitate mailako formazioa, formazio zientifikoa zein teoriarik zein praktikan bermatuko duena, pertsona eta talde ezberdinen beharrizan soziohezitzaileei erantzungo diona, beraien garapen osoa ahalbideratu ihal izateko.

### **Zeintzuk izan behar dute unibertsitate ikasketa honetan sartzeko ezaugarriak?**

Inguru sozialarekin engaiamendu etikoa.  
Pertsonenarteko harremanetarako trebetasuna  
Diferentziari begirunea.  
Lan taldean aritzeko aurretiko jarrera.  
Ekimentsua eta izaera ekintzailduna.

Kultura ondasunarenganako jarrera irekia.

### **Eta egresoaren ezaugarriak?**

Soziohezitzaile alorreko esku-hartzeei buruz:

- Gogoeta eta ikerketarako ahalmena.
- Oinarri teorikoen ezagutza.
- Metodologia eta estrategia.ezberdinetan aditua
- Plangintza, proiektu eta programak asmatu eta aholkatu, antolatu eta kudeatzeko ahalmena.
- Errealitatearen azterketarako metodoak ezagutzea
- Bertoko eta globaletan politikan aditua

Argibide gehiago nahi izanez gero, perfilprofesional honen ezaugarriez eta titulazio honetako modalitate metodologikoez, jogueure BLOG-era

**<http://ibp-bilbao.blogspot.com>**

## **Ikerketa proiektua EHU-UPVren eta GHEE-CEESPVren artean. Gizarte hezitzaileen lanbide testuingurua babesgabetasun egoeran dauden haurren eremuan**

Nerea Agirre. Irakaslea. EHU-UPV

Josebe Alonso. Irakaslea. EHU-UPV

Maite Arandia. Irakaslea. EHU-UPV

Nekane Beloki. Irakaslea. EHU-UPV

Idoia Fernández Irakaslea. EHU-UPV

Jesús Otaño. Gizarte Hezitzailea – GHEE-CEESPV

Arantza Remiro. Gizarte Hezitzailea – GHEE-CEESPV

Arantxa Uribe-Etxeberria. Irakaslea. EHU-UPV

### **IKERTZAILE TALDEA**

Unibertsitatearen eta profesionalen artean dagoen harremana aspalditik existitzen da. Aitzitik, unibertsitateetik elkarrekin lan egiteko beharra ikusi genuen ikerketaren eremuan, hau da, ezagutza zientifikoaren beraren ekoizpenaren eremuan.

Lantaldean UPV/EHUko irakasleak eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoan, gizarte eta hezkuntza esku-hartze zuzenaren eremuan lan egiten duten profesional-ikertzaileak daude. Lantaldearen eskuetan daude ikerketaren diseinu eta garapen metodologikoaren erantzukizunak. Taldearen eraketa pedagogia kritikorekin eta ikerketa eta parte-hartze ekintzarekin zerikusia duten planteamendu teorikoen baitan kokatzen da.

### **LANERAKO HIPOTESIA**

Ikerketa proiektu honetan lanerako hainbat hipotesi ditugu, hain zuzen ere:

1. Hartzaroaren eremuan esku hartzen duten hezitzaileen testuinguru praktikoen barruan jada eraikitako behar besteko ezagutza praktikoa dago unibertsitatearekin batera hasierako eta jarraikako prestakuntza planteamendua eratzeko. Horrek aukera ugari ahalbidetzen ditu hezkuntzaren eta gizartearen esparruetan.
2. Gizarte eta lan motako faktoreak daude, generokoak, prestakuntzakoak eta antolamendukoak bezalaxe, eta horiek Gizarte Hezkuntza eremu honetan profesionalki eta erakundeei dagokienez garatzea zailtzen dute.
3. Ezagutza dokumentu bidez eta profesionalak izandako esperientziak sistematizatzearen bidez ekoiztea funtsezkoa da, koherentzia eta eraginkortasuna izango duten aldaketak bultzatzeko.

#### IKERKETAREN HELBURUAK

1. Haurrek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten egoera aztertzea: erakundeen jardueren deskripzio mapa lantzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde sareak eremu honetan aztertzea alderaketa eginez.
2. Gizarte hezitzaileek eremu honetan garatutako hezkuntza lana zein lanbide baldintzetan egiten den zehaztea, hartzaroaren mundu profesionala ulertzea oztupoak eta bultzatzaileak sumatzean, eta lankidetzan aritzearen bitartez gizarte hezitzailearen irudi profesionala eraikitzea.
3. Unibertsitatearen eta gizarte hezkuntzaren agentzia sarearen arteko lanean aurrera egitea ahalbidetzen duten praktikak identifikatzea: aurrerantz egiteko proposamen gida lantzea, eta unibertsitatearen eta profesionalen arteko lan mekanismoak eta tokiak sortzea bultzatzea.

#### PLANGINTZA METODOLOGIKOA

**1. fasea** – Teknika nagusia dokumentu azterketa eta narrazio datuen bilketa izan da, sektorearekin lanbide lotura duten pertsonekin hamar elkarrizketa sakon eginez. Horren guztiaren azterketak lurralde mapa ezberdinak ekarri ditu. Halaber, aholkularitzaren irudia erantsi da, eta web orrialdea martxan jarri da. Zentzu horretan, konpromiso etiko zehatza hartu da parte-hartzaileekin, gardentasunarekin eta prozesuaren emaitza guztien sozializazioarekin hartutako konpromisoa hain zuzen.

**2. fasea** – Prozesua arautzeko printzipio gisa elkarrizketa, parte-hartzea eta jardule guztiek erantzukizunez esku hartzea jartzen ditugu. Erabiliko den informazioa biltzeko teknika nagusia komunikazioko eztabaida taldea izango da. Fase honetako alderaketa bi fasetan egingo da. Batetik, aholkulariarekin alderaketa egingo da; harekin ikerketa kualitatiboaren eta kooperatiboaren diseinua eta prozesua eraikiko da. Bigarren fase horren hedapenak bat egiten duenez ikerketaren amaierarekin, zentzu bikoitza du hemen horrek, gizarte eta lanbide ingurunari eta mundu zientifikoari dagokionez. Ibilbidea unibertsitatearen barruan (practicumari planteamendu berria emanaz lanbide jardunarekin nabarmenki alderatutako lanbide gaitasunak ikasteko erabilgarria izan dadin) nahiz mundu zientifikoan egingo litzateke, aldizkari zientifikoetan artikuluak argitaratuz eta biltzarretan parte hartuz azken horren kasuan.

#### KOMUNIKAZIO IKUSPEGIA

**Antolamendu dimentsioa** – Komunikazio metodologiaz hitz egiteak ikerketaren barruan komunikazioa benetako bihurtzeko moduak ezarri behar ditu, komunikazioa horizontaltasunetik eta prozesu osoan zehar ahots guztiak eranstetik ulertua. Halaber, egiteko moduetan agertu behar da, bai sortzen diren antolamendu egituretan, bai ezartzen diren baliabideetan. Horrekin zerikusia du tradizioz ikerketaren munduaren barruan izan diren eta egun oraindik badiren metodologia maila ezberdinekin apurtzearen alde egitearekin. Izan ere, ez dugu

ahaztu behar ezagutzak taldeko eraikuntza izaten jarraitzen duela, eta taldeko izaera hori ikerketa baten diseinu eta garapenean islatzetik bakarrik izango da posible zentzuarekin sartzea ikertu nahi ditugun hezkuntza eta gizarte errealitateen ulermenean.

**Prestakuntzaren dimentsioa** – Ikerketa prozesu orok prestakuntza ondorioak ditu pertsonentzat. Horrez gain prozesuan lanbide kultura ezberdinetakoak diren pertsonen parte hartzen badute, saihestezina da ikerketaren xedera egokitasunez hurbiltzea ahalbidetuko digun hizkuntza komuna nola sortu galdetzea. Prestakuntzaren dimentsioak ezaugarri ezberdinak ditu ikerketa honen barruan; ondorioz, bi helburu handi izango genituzke: a) ikerketa kualitatiboaren prozesuen ezagutzan eta proiektioan sakontzea, horien barruan komunikazioaren izaeran bezalaxe; b) interpretaziorako baliabideak eta berreraikuntzak ikasteak prozesuen azterketara hurbiltzea ahalbidetzen digu modu ulerkorrago eta kritikoagoan. Halaber, pertsonen eta azterlanaren xedearekin lotura soziala duten taldeen jabeak orokorrerako bidea da. Hezkuntzaren eta ikerketaren ikuspegi kritikoan murgildurik gaudenontzat, onarpen mailak, mendetasuna gaingaitzekoak eta ezagutzaren modu jakin batzuei lotutako botere moduekin apurtzekoak hartzea ahalbidetuko diguten moduak bilatzea funtsezkoa da. Hori dela eta, prestakuntzaren baitan pentsatzea urratsa dela ere uste dugu, ikertzaile gisa egindako jardunean eraldaketaren horizonte orokorrera hurbiltzeko. Horrek Hezkuntzaren barruko jarrera kritikoak ezberdintzen du.

Ikerketan parte hartu duten beste pertsona batzuk

Maite Alvarez Inmaculada Antolín Olga Aroz Lander Arteta Aitor Avila Elena Aycart Pili Azpeitia Luz Clemente María Cordon	Boni Diaz Ziortza de Egiluz Miren G. Emezabal Atsegine Goitiz M. José Gorrotxategi Gure Ibarguren Ixone Ibarluzea Alberto Jauregi Iratxe Lazkano	Fermín Martín Ainhoa Martín Lorenzo Martínez Paki Navazo Mari Luz Pelayo Inés Picó Txema Presa Pilar Sánchez Elena Serralta	Daniel Rubio Gorka Tagle Rebeca Toresano Asun Valenzuela Beatriz Varas Arantxa Zabaleta Igor Zurutuza Eta Arabako beste 6 hezitzaile
---	--	---	--

## ESPERIENTZIAK

### ESKAKIZUN APALEKO ZENTRO BATEKO INGURUAN ABIATUTAKO GIZARTE HEZKUNTZA

Aitziber Arkaute  
Gizarte Hezitzailea

Estrada Eguneko Zentrua, titularitate publikoa duen zentrua da: 1998. urteko Ekainetik IFBS, Udaletxea eta Arabako ihesaren aurkako Hiritarren Batzordetik kudeatzen da.

Zentru hau ondorengo pertsonen zuzendurik dago: toxikomania desberdinak eta alkohol arazoak dituztenei, erregimen zigorrak bete behar dituztenei, arazo psikiatrikoen ondorioz gizarte baztertua pairatzeko arriskua dutenei eta arazo zehatzak ez izan arren gizarteko talde marginatuekin erlazionatzen direnei.

Errekurtso honen bitartez, euskarria eta gizarte sostengua eskeini nahi da, pertsona hauek gizarte sareko erabilerara bideratuz eta norberaren ardurak barneratuz. Profesionalak garen moduan, jakitun gara pertsona hauen baztertze egoera eman ez dadin, norberaren pertzepzioa hobetzearen inguruan lan egin behar dugula eta baita beraien aldaketarako aukeren inguruko gure pertzepzioan ere. Aldaketarako desira bultzatu behar dugu (S.Cirillo). Honetan datza gure tresna hezigarria.

Zentrua harrera egokia duen espazio fisikoa da eta maila bajuko eskakizuna duen testuinguruan kokatzen da, araudi minimo batekin funtzionamendua eta elkarbizitza ona izan dadin. Oinarrizkoak diren hiru arau daude: kontsumo eza, zentruan eta honen inguruan ez "trapitxeatzea" eta errespetua langileekiko, zerbitzura gerturatzen diren pertsonetikiko eta instalazioekiko. Harrera egiten dugunean esplikatzeko diegu, arau hauek ez errespetatzea, kanporatzeko arrazoia izan daitekeela. Gure eguneroko lanean muga ugari jarri behar ditugu hau ez gertatzeko eta elkarbizitza erginkorra eman dadin.

Gure zerbitzuaren funtsezko helburuak honako hauek dira: drogaren gehiegizko erabilerarengatik eta baztertze egoerarengatik sortzen diren kalteen murriztea eta prebentzioa, gizarte eta lan munduan txertatu baino lehenago osasungarriak diren ohitura edo abituak barneratzea, eta gizarte zerbitzuen eta komunitateko errekurtsoen erabilera bultzatzea. Hau da, pertsonari laguntzea bere bizi kalitatea hobetzeko.

Gure lan taldea psikologa batez, gizarte langile batez, zazpi gizarte hezitzaileez, tailerretako begirale batez eta garbitzaile batez osaturik dago.

Eguneko Estrada Zentrua alor desberdinetan egituratzen da, eta honek banakako modu batean lan egin ahal izateak errazten digu zentrua gerturatzen diren pertsona guztiekin. Alor nagusienak honako hauek dira: atsedenerako alorra (telebista gela, office: kafea, hamiketako, jokuak,...) eta talde eta tailerretarako alorra. Lehenengo alorra erabili ahal izateko arautegia errespetatzea eskatzen da soilik eta ez da kontsumo aktiboa eztabaidatzen. Baina tailer eta taldeetan parte hartu ahal izateko neurritasuna eta hitzarmenaren konprometzua betetzea eskatzen da (puntualitatea, bertaratzea,...).

Zerbitzua eraginkorra izan dadin eta ipinitako helburuak lortzeko behar-beharrezkoa da lan metodologia multidisziplinarra eta pertsonalizatua izatea, gizabanakoaren garapena sustatuz eta bere autonomia eta askatasuna errespetatuz. Gure lan tresnak interbentzio hezigarriak dira:

- Informazioa / Harrera
- Banakako Eskuhartzeak
- Krisi egoerako Eskuhartzeak
- Kanporatzea edo eta Itxiera
- Banakako Eskuhartzeen jarraipena
- Zentrutik kanpoko laguntzea

Adibide moduan: Zer gertatzen da zentrua pertsona berri bat heltzen denean? Lehenik gure burua aurkezten dugu eta harrera egiteko solas gunera ekartzen diogu, bertan zentrua norentzat zuzendurik dagoen eta bertako arautegiaren berri ematen diogu. Aldi berean, ditugun errekurtsu eta zerbitzuak eskeintzen dizkiogu. Batzuk aipatzearren:

- > Xiringen trukeko programa
- > Preserbatiboen banatzea
- > Dutxa eta garbigailu zerbitzua

- > Atsedeen gunea
- > Tailer eta talde ordainduak
- > Laguntza psikologikoa

Harrera, momentu edo tarte tarte egokia da modu informal batean pertsonaren egoerari buruzko informazioa jasotzeko eta errespetuzko harreman on bat sortzeko gerora etorriko diren eskakizun eta kontsultei begira. Pertsonarekin ematen den lehen kontaktua da eta funtsezkoa izan ohi da lotura sortzea hezitzailearen eta harrera egiten zaion pertsonaren artean. Bere egungo egoeraren arabera, zentrora joatea edo ez egokiena den baloratzen dugu eta baita ere zein motatakoa den bere eskaera: esplizitua edota inplizitua. Hemendik, informazio honekin martxan jastzen gara.

Gerta daiteke, egoera txarrean etortzea eta dutxa baten eta maileguko arroparen beharra izatea, pertsona larritua eta asaldua etortzea eta horregatik euste hunkigarria egiten dugu eta gerta daiteke tratamendua jasotzeko zentruen inguruko informazioa eskatzea, baita ere gure zentrua ezagutzea eta tailer eta taldeetan parte hartu nahi izatea...

Erabiltzaile berrien eta eskaeren inguruko informazio berri hauei buruz, gure artean egunero izan ohi ditugun koordinazioetan hitz egiten dugu ( txanda aldaketak) eta larritasunaren arabera erabakia hartzen da. Eta bestela, asteroko bileretan, non talde guztia egoten gara, kasu berriak baloratzen ditugu eta zentrora erregulariki etortzen diren pertsonen jarraipen bat egiten dugu.

Barne koordinazio hau, lan tresna beharrezkoa da zerbitzuaren funtzionamendu egokia eman dadin. Bestalde, zentruko arduradunak beste erakunde batzuekin koordinatzen dira (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Atxilotuari arreta egiteko zerbitzua, Alkoholismoko Kontsultategia, Toxikomania tratamenduen zentrua, Kale Heziketa zerbitzua,...) zeinak pertsona erbailtzaileen prozesuan eskuhartzen dute beraien bilakaera eta gure lanaren eraginkortasuna ezagutzeko asmoz.

Azkenik, jarraipeneko ebaluaketa prozesua burutzen dugu, bai eskuhatze hezigarriena eta baita zentruko barne funtzionamenduarena ere; zerbitzuko profesionalak hobetzeko eta lantzeko beharrezkoak baloratzen ditugun arloetan lan egin eta eragina izateko.

## **GAZTEFORUM proiektua: Gazteen ahotsak**

Pili Azpeitia  
Gizarte Hezitzailea  
Ohiana Galardi  
Gizarte Hezitzailea

Gazteleku eta kale heziketa programetako hezitzaileek (edo gazteei zuzenduriko beste gizarte hezitzaileek), askotan, gazteen artean talde-egoera kezkarriak ikusten dituzte, bere zaugarritasunarengatik, hauskortasunarengatik, arrisku egoerarengatik, erakusten dituzten jokaerarengatik, heuren artean edo/eta ingurunearekin erlazionatzeko modurengatik,... Baina era berean hezitzaileek, lagun-taldea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu, garapen pertsonalerako funtsezko osagaiak dauzka, gazteei hauek ezagutzen eta sustatzen laguntzea baino ez da behar.

Maiz, aitzakia bat behar izaten da, hezitzaile-gazte harremanean bere egoeraren kanpoko ikuspegi bat ematea ahalbidetu eta zentzu positibo, eraikitzaile, aberasgarri eta helduezko prozesuan lagunduko dien maila batetara iristeko.

Badira 14 urte Hezi Zerb elkarteak gazteriari zuzendutako heziketa proiektu desberdinak kudeatzen dituela eta eguneroko lanean ikusi eta bizi ahal izan dugunez, kezkatzen gaituzten gisa honetako hainbat egoera aurkitzen ditugu. Guzti honi erantzuteko, Hezi Zerb elkarteak, **GIPUZKOAKO GAZTE FORUM** lehiaketa eta heziketa proiektua antolatzen du eta Gipuzkoako Foru Aldundiko, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak finantzatzen du, Gipuzkoako lurralde osora zabaltzen delarik. Gipuzkoako gazteleku, kale heziketa programen edota bestelako baliabide giza-komunitarioen erabiltzaileak diren 13-17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dago.

**Gazte Forum egitasmoak pertsona zein lagun taldearen inguruan hausnartzeko aukera eskaini nahi du:** Gure ustez, gatazka edo zailtasun orok aukera bat eskaintzen du. TALDEA, LAGUNAK, balore bat dira, funtsezko zerbait, ordezka ezina den ondasuna. Nerabeei balore hori aurkitzen laguntzea garrantzitsua da, taldearen arriskuak identifikatzen eta kudeatzen eta euren gizarte bizitza garatzeko maila pertsonalean dituzten ahultasun eta indargunez ohartaraztea. Eta honakoa euren baloreen (talde gisara dituztenak) promozio gisa aurkeztea eraginkorragoa da, euren alderdi positiboetatik talde identitatearen eraikuntza gakitza harturik, honek pertsona zein talde bezala kontziente zein inkontzienteki laguntzen ez dieten talde dinamikaren elementu horiek identifikatzeari garrantzirik ken ez diezaion.

Proiektu honek lan egiteko modu bat eskaini nahi du, aldi berean erakargarria eta Intentsita-tezkoa den prozesu pertsonal, taldeko eta taldeaz gaindiko batean parte hartzea ahalbidetuz. IENTZIAK

Garrantzitsuena beraietaz hausnertzea da, euren talde zein errealitate pertsonalean. Ez datza lagun talde orokor batez hitz egitean, baizik eta, talde zein taldekide gisa dituzten ahultasun eta indarguneen gaineko begirada bat botatzea, gizarte testuinguru handiago batean.

Bizipeneko prozesu burutsu baten ostean, talde hausnarketa horrekin, ikus-entzunezko muntai bat sortzea da asmoa (film-laburra, dokumentala, bideoak, fotomuntaiak...), honek, beste gazteentzat eta orokorrean biztanleriarentzat esportagarria den mezu bat bilduko duelarik.

#### **Zer bultzatzen du Gazte Forum proiektuak?**

- TALDE BARRUAN EMATEN DIREN ERLAZIO MOTAK IDENTIFIKATZEA (TRABAK ETA LAGUNTZAK).

Talde presioa, arriskuak, talde baloreak, pertsonen arteko harremanak, lagun taldearen ahalmenak,... positiboki lan egitea, taldearen gaitasunekin lan egitea, jabetzea.

- GIZARTE TREBETASUNAK ETA ENPATIARAKO GAITASUNA GARATZEA. Taldean lantzen diren dinamiketan gizarte trebetasunak landu eta saiatu besteari ulertzen, bestearen egoeran sartu eta bere lekuan jartzen.

- TALDEA ETA HEZITZAILEEKIKO HARREMANA SENDOTU. Gai hauetaz hitz egiterakoan, zuzenki beraiekin zerikusia duten gaiak, talde harremanak sendotzen dira, irekitzen dira, lagunak ikusten direlako euskarri bezala. Era berean hezitzaileekin erlazio estuago bat ematen da eta gerora ate asko irekitzen dituenak.

- GAZTEEI ZUZENDUTAKO BALIABIDE EZBERDINEN ARTEKO ELKARLANA ETA KOORDINAZIOA BULTZATZEN DU.

- KOMUNITATEAK GAZTEAREN ALDE POSITIBO ETA ERAIKITZAILEAZ JABETZEA.

#### **Proiektuaren hamar gako**

1. Berezko taldeak indartuagoak ateratzea.

2. Beraiei eta beraien bizipenei denbora eskeintzea.
3. Arrazoi motibatzaile bat eskeintzea: Lehiaketa.
4. Prozesu luze bat: 6 hilabete edo gehiago luzatu daitekeena nahi izanez gero eta honek beste aukerak ematen dizkigu.
5. Intentsitate eta dezelerazioa: gaur egun azelerazio momentuak bizitzen dira, honek etenaldi bat eskeintzen du.
6. Lan planifikatu bat: programatua eta ebaluatua.
7. Sortzailea: hausnarketaren ondorioz mezua modu sortzaile batetan aurkezten da.
8. Positiboa eta sustatzailea.
9. Inpaktua duena, taldean eta kanporantz aldaketak.
10. Etorkizunerako erlazioa sendotzea.

### **GAZTE FORUM Lehiaketaren prozesua**

#### **AURKEZPEN FASEA:**

- Hezitzaileek gazte taldea aukeratu. Horretarako baldintza minimo batzuk: 10 gehienez, lau gutxienez, aurretik erlazio bat eduki behar dute eta adina: 13-17 urte bitartekoak.
- Hezitzaileek gazte taldeari proiektua aurkeztu eta proposamena egitea.

#### **HAUSNARKETA FASEA:**

- Hezitzaileak gazte taldearekin hausnarketa prozesuarekin hasten dute

#### **SORMEN FASEA:**

- Bideo muntaiaren gidoia egiten da gazteekin batera
- Grabaketak
- Muntaia

#### **LEHIAKETA FASEA:**

- Talde bakoitzak bere lana bidaltzen du epearen barruan
- Gazte taldeak, hezitzaileak eta epaimahaiak irabazleak aukeratzen dituzte, aurkezpen ekitaldi egunean.

#### **AMAIERA FASEA:**

- Lanen zabaltzea.

Proiektu hau martxan jarri genuenetik, lau urte igaro dira. Lehendabiziko bi urtetan Hezi Zerb elkarteko zenbait baliabideen artean egin genuen eta bi azkenekoak Gipuzkoako Aldundiak finantziatuta, lurralde osora ireki zen. Urte guzti hauetan, parte hartu duten lehiakideek balorazio positiboa egin dute eta lehiaketa honekin bilatzen diren helburuak soberan bete dira.

Ez dira gutxi urte hauetan parte hartu duten gazte eta hezitzaileak. Aldundiko proiektu bat denetik, lehenengo urtean, Gipuzkoako 17 baliabideetako (gazte lokalak eta kale heziketa programak) 110 gaztek eta 35 hezitzailek parte hartu zuten, dena 16 lan aurkeztu zituzten eta guztiak elkartzeko aukera izan genuen bakoitzak egindako lanak ikusteko.

Aurtengo lehiaketan 22 baliabidek parte hartzen dute, batzuk, aurreko urtean bezala, auzo edo herri berdinekoak dira eta elkarlanean aurkezten dituzte lanak, dena 27 lan. Ikus dezakegunez handitzen doa parte hartzea beraz ekainaren 7an sari banaketaren ekitaldian 200 pertsona inguru: gazte, hezitzaile, teknikari... elkartu gintezke Donostian.

Ez da lan makala hezitzaile hauek beraien gazte taldeekin egiten duten heziketa lana, beraz hemendik gure esker ona, proiektu hauek ez bait lirarteke aurrera aterako eguneroko esfortzua existituko ez balitz, ez eta Aldundiak bultzatuko ez balitu.

## SUSTERRA Elkarte

Kaixo kideok: SUSTERRA zer den adierazteko lana proposatu diguzue, eta, gure bederatzigarren urteurrena ospatzetik astebetera gauden honetan, gure historiaren berri emango dizuegu.

Pena merezi duten istorio guztiekin gertatzen den bezala, Susterra oso toki bizia da, algara eta malkoez beterikoa, esfortzu eta poztasun itzelekin, eta istorio bakoitza bere baitan bakarrik ulertzeko moduan jartzen duten inguruabar eta ñabardurekin, hain zuzen ere gazte bakoitzak bizi duen garapenetik.

Aitzitik, Susterra izeneko "fenomeno" honi kolorea emango dioten pintzelkada batzuk eskaintzera ausartuko gara.

Historia 1996-97tik abiatzen da, Bidegintza eta Sortarazi izeneko bi elkartek muga metodologikoa topatu zutenean beren esku-hartze aukeretan. Erakunde horiek urte batzuk zeramatzen adin txikikoei eta haien familiei arreta eskainiz itsasadarraren bi ertzetan, Bilboko Alde Zaharraren zonaldean. Bidegintzak arreta ematen zion gizarte eta hezkuntza esku-hartzeari, Sortarazi prestakuntzaren eta lanaren eremuan aritzen zen bitartean. Lanaren xede izandako gazte horiek hazi egin ziren, eta hogeitun urteen bueltan zebiltzan, baina esku-hartze proiektu baten laguntza behar izanez oraindik. Izan ere, gauza ugari ikasi zituzten, gaitasunak eskuratu eta lan munduranzko eta denbora libreranzko bidea hartzen hastearekin batera; gizarteratzearen bidea, ordea, ia hasi gabe zuten. Beharrezkoa zen landutakoari jarraitasuna emango zion beste proiektu bat eratzea.

Sortarazi eta Bidegintza elkarrekin lan egiten hasi ziren, diseinu metodologiko koherentea zuen proiektua sortuz eta urte askotik ordura arte prozesuan zeuden gazteen indar guztia jarritz. Baliabide ekonomikoak jarri zituzten hiru administrazioekin (EJko, Aldundiko eta Udaleko Gizarte Ekintza) Susterra sortu zen. Oso esperientzia polita izan zen, lehen izenagatik besterik ezagutzen ez ziren bi erakunde horiek gai izan zirelako hogeitun urteko gazte kalekume horien, hainbat arazo konpontzeko zituzten horien beharrei egokituriko proiektua sortzeko. Administrazioekiko elkarriketa ere oso interesgarria izan zen, eta ez ziren erronkak eta zailtasunak falta izan. Edonola ere, abenturaren alderdi bat izan ziren horiek.

Egun, Susterraren hartzailleak 18 eta 35 urte bitarteko 400 gazte baino gehiago dira. Horiek Abusu, Atxuri, Bilbo Zaharra, San Frantzisko, Zazpi kale... bezalako tokietan bizi dira, eta egoera latzei aurre egin beharrean daude (familiako gatatzak, galera traumatikoak, familiaren sarerik ez izatea, arazo judizialak, espetxeratzeak, toxikomaniak, buruko gaitzak, muturreko txirotasuna, etorkina izateagatiko deserrotzea, genero indarkeria, miseriako lanpostuak edo lanposturik ez izatea...). Ondorioz, esku-hartze eta Gizarteratze proiektu batekin harremanetan egoteak ematen duen babesa eta indarra behar dute.

### **Eta zer egiten du SUSTERRAK?**

- Lau auzotan egiten dugu lan: Bilbo Zaharra, San Frantzisko, Abusu eta Atxuri. Auzo horietatik gure eskaintza distritu osoari iristen zaio.
- Bi lokal ditugu, bata Bilbo Zaharrean eta bestea Abusun.
- Eta Susterra eratzen dugun pertsonoi dagokigunez, 18 urtetik gorako 400 gazte baino gehiago gara. 8 pertsonako hezkuntza taldea dugu, eta berriazko eginbeharretan oso modu ezberdinetara laguntzen dugun pertsona taldea ere bai.

Metodologiaren ardatzak honakoak izango lirateke:

- **1. Banan-banako esku-hartze proiektuak:** gazte bakoitzak, erreferentziako hezitzailearekin harremanetan egonez, bere gizarteratze proiektua eraikitzen du garapena eratzten duten esparru guztietan (lana, aisialdia, osasuna, etxebizitza, harremanak, familia antolamendua...). Pertsona bakoitzak bere berezitasunak ditu. Batentzako garrantzitsua da toxikomania gainditzea, beste batentzat arazo judizialak konpontzea, beste batentzat bere familiaren sisteman dagoen indarkeriaren arazoa ebaztea, beste batentzat espetxean sartu beharra prestatzea, beste batentzat lanpostu jakin batean mantentzea, beste batentzat eskizofreniarekin bizitzen ikastea... Bakoitzak ebatzi beharreko gauza ezberdin bat du. Hezkuntza esku-hartzeko proiektuaren bitartez, esku-hartzearen funtsezko guneak sumatzen dira, bizitzako esparru guztiak integratzearekin batera.
- **2. Proiektuaren esparru ezberdinek ekarritako Taldeko jarduerak:** proiektuak ongi bereizitako esparruak ditu (prestakuntza eta lana, aisialdia eta denbora libre, osasuna, etxebizitza, genero berdintasuna, justizia...). Esparru bakoitzak urtero sumatzen ditu zeintzuk diren helburuak, gazte taldeak dituen beharrak esparru jakin bakoitzean. Ondoren, informazio, prebentzio edo arintze jarduera jakin batzuk egiten dira, taldeari aukera emanaz esparru guztietan aldi berean aurrerantz egiteko. Jarduera horiek auzo ezberdinetan, talde ezberdinekin, "euskarri" eta eduki ezberdinekin egiten dira, talde bakoitzak har dezakeenera egokitzeko. Jarduera horiek beste baliabide, elkarte edo zerbitzu batzuekin koordinazioan arituz egin daitezke.
- **3. Komunitatearen esku-hartzea eta zonaldeko gizarte baliabideekin koordinazioa:** Susterrak BILBOko 5. barrutiko gizarte zerbitzuen sarearen eta komunitatearen proiektuaren partetzat du bere burua. Eta horrek, zer esan nahi du? Bi gauza esan nahi ditu.

**Lehenengoa:** gainerako gizarte baliabideak gabe ez gabela ezer, gazteek dituzten beharrak hain aintzak eta hain garrantzitsuak izatean barrutiko baliabide guztiak behar ditugulako (Gizarte Zerbitzua, Auzolan Modulua, egoitza bizitoki eta baliabideak, droga mendetasun arazoetarako prebentzio eta laguntza zerbitzuak, prestakuntza baliabideak, lanekoak, aisialdi eta denbora librekoak, judizialak). Banan banako gizarteratze proiektu batek aurrera egiteko, beharrezkoa da elkarren mendeko diren baliabide asko koordinaturik egotea.

**Bigarrena:** komunitatearen protagonismoa funtsezkoa iruditzen zaigu Gizarteratzean. Komunitatea da bere kabuz indarra eta kultura sortzen doana, arazoez jabetzeko eta konponbideak topatzeko. Adibidez, gure barrutian komunitatean sortzen ari diren komunitate egoerak agertzen hasi dira orain (auzotarren multzoak, taldeak, erakundeak eta baliabideak), eta horiek begiratu nahi ditugu eta begiratu ahal ditugu. Toxikomania, gizon eta emakumeen arteko indarkeria, etorkinekin bizikidetzaren integratua dira egoera horietako batzuk. Susterrak, gizarte baliabidea den heinean, komunitateak begiratzen, ikusten, entzuten, erabakitzen eta egiten duen protagonismo prozesu horretan lagundu eta parte hartzeko konpromisoa du, eta horretarako parte-hartze aktiboa du komunitatearen sareetan.

Hasi ginenetik bederatzi urte baino gehiago igaro dira jada, eta nabari da.

Eta datorren 2008 honetan hamargarren urteurrena ospatuko dugu, eta proiektuan dauden baliabide, administrazio, gazte eta gainerako guztiekin ospatuko dugu, bertatik igaro direnekin eta gurekin harremanetan jartzen hasi direnekin bezalaxe.

Izan ere, haiek dira proiektu honen oinarria. Elkarrekin aurrerantz egiten jarraituko dugu.

## BATZARKIDEEN AHOTSAK

### Harremanen hirukia: elkarrekin lan egiteko

Aitor Avila

Gizarte Hezitzailea

Lanbide Elkargo bati zentzua ematen dion helburu nagusietako bat lanbidearen ahotsa izatearena da erakunde ezberdinen aurrean; horrela, gizarteak eskatutakoa garatzen duenaren irudia sustatu egiten da.

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen kasu berezian, sustapen horrek herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetzea ekartzen du, gure lanbidearekin loturaren bat duten herritar eta erakundeei laguntza hobea ahalbidetzearekin batera.

Hori dela eta, GHEE-CEESPVren egungo Gobernu Batzordeak, hasieratik, protagonismoko papera eman die Elkartearen eta Gizarte Hezkuntzaren eremuan eragina duten erakunde ezberdinen arteko harremanei.

Horretarako, hiru harreman maila bereizten dugu Gizarte Hezkuntzaren lanbidean. Horiek erakundeekin hirukia eratzen dute, eta Elkargoak lan esparru partekatuak sortu nahi ditu. Horien bidez, gure lanbidea onartu egiten da, eta herritarrei emaniko zerbitzuak hobetu egiten dira (Gizarte Hezkuntza herritar horiek duten eskubide modura hartuta). Nahasketa filosofiko hori argitzen joate aldera, hizpide izango ditugun hiru erakunde mailak honakoak izango dira:

1. Herri Administrazioa (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) neurri handi batean, eta zenbait erakunde pribatu; gure lanbidetik jorratu beharreko eskaerak egiten dituztenak izaki nagusiki.
2. Unibertsitatea etorkizuneko profesionalak gaitzeko ardura duen organo akademikoa da; erakundeen lehenengo mailak egindako eskaerei erantzutera zuzendutako prestakuntza eman behar du.
3. Gizarte eta Hezkuntza Esku-hartzearen eremuko profesional taldea, erakundeen lehenengo mailak egindako eskaerei erantzuteko jarritako organoa izaki. Aldi berean, sumatutako eta jorratu gabe dauden gizarte behar berriak agerian uzteko ardura du, Gizarte Hezkuntzaren Diplomaturak dituen prestakuntza gabeziak azpimarratzekoa bezalaxe.

Azken maila horretan gure Elkargoa da gure lanbidearen interesen izenean jarduteko erantzukizuna duena, eta, sustapen horren bitartez, harremanetan gauden herritarren bizi baldintzak hobetzearen alde egitekoa.

Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen da adierazitako erakunde ezberdinen artean (Administrazioa, Unibertsitatea eta Elkargoa) partekaturiko lan eremuak ezartzea, herritarren beharrei hobeki egokituriko erantzunak sortzeko eta haiek Gizarte Hezkuntzara iristeko, baina ez gabezia batzuei emaniko erantzun modura, baizik eta gizarte honetako kide den pertsona bakoitzak berezko duen eskubide bezala.

Lan esparru horretatik egunetik egunera eraikitzen da GHEE-CEESPVa (egun egitura egonkorra du jada), eta Gizarte hezitzailearen irudia bultzatzen jarraitzeko asmoa du. Halaber, foro hauek eratzen dituzten gainerako erakundeek bezala,

gizarteari emaniko erantzunak hobetu nahi ditu, mundu hau eratzen duen pertsona bakoitzak eskubide eta aukera berdinak izan ditzan.

Zenbaitetan prozesu gogorra eta lan eduki handikoa izan arren, Gobernu Batzordeak eta Ordezkaritza, Batzorde eta Lantalde ezberdinetan parte hartuz ekarpenak egin dituzten pertsona guztiek gogobetetasunik handiena adierazi behar dugu lortutako helburuak lortu izanagatik eta Gizarte Hezkuntzaren alorreko profesionalak lortu duten onarpen mailagatik, bai Herri Administrazioaren baitan, bai Unibertsitatean.

Hau, ordea, eraikinaren hasiera besterik ez da, harremanen bitartez eraikitzen jarraituko dugun eraikinaren hasiera hain zuzen, egunen batean pozik utziko gaituen (edo agian ez) zerbait eraikitzeko. Edonola ere, hori da ibiltzen jarraitzea, harremanetan jartzea eta eraikitzea ahalbidetuko diguna.

## **Dokumentu profesionalizatzaileen argitaratze urtea**

Alvaro Cano  
Gizarte Hezitzailea

Azkenean, 2007ko irailean eta Toledoko Biltzarraren baitan, gizarte hezitzaileok gure lanbidea profesionalizatuko zuten dokumentuen aurkezpena ospatu ahal izan genuen.

Kode Deontologikoak, Gizarte Hezkuntzaren definizio profesionalak eta Funtzio eta Gaitasunen Katalogoak gizarte hezitzailearen nortasuna eta kultura ezartzen dute. Ondorioz, gizarte hezitzaileek gure buruari emandako nortasun txartela, bide liburua da.

Estatuko lanbide elkargo guztiek horiek berretsi arte, prozesua luzea eta interesgarria izan da eztabaida eta hausnarketari dagokienez.

Euskadiko gizarte hezitzaileek testu hauen sorreran, diseinuan eta lanketan izandako paper protagonista gogorarazi eta zoriondu beharrean nago. Haien lan, dedikazio eta ezagutza teknikorik gabe, ziurrenik dokumentu horiek ez zuketean argia ikusi izango.

Gomendatu nahi nuke etengabe gure motxiletan, oheurrekoan egon daitezela, eta gure eguneroko lan profesionalean lagun gaitzatela.

Dokumentu horien bitartez, zera ziurta dezakegu: Gizarte Hezkuntza hau da eta ez beste ezer, eta gizarte hezitzaileok honela jarduten dugu eta ez beste era hartara. Aldi berean, herri erakundeen eta erakunde pribatuen, erakunde kontratatzaileen, ikasleen eta beste profesional batzuen aurrean gure lanbidea aurkezteko gutun modura erabil ditzakegu.

Definitzen gaituzten eta gure lanbide praktika zuzentzen duten dokumentuak eginga, galdera bat sortzen da: eta orain, zer egin behar dugu horiekin?

Uste dut une honetan gizarte hezitzaileok horiek barneratu, aplikatu eta barreiatu behar ditugula, egunetik egunera gauzatzen dugun lanbide jardunean.

Aurretik datozen urteak ditugu eginbehar hori betetzeko eta gure lanbidea are sendoagoa bihurtzeko.

Etorkizuna Gizarte Hezkuntzarena da.

## Elkargoaren zerbitzuen inguruan zenbait hausnarketa

Andoni Durán  
Gizarte Hezitzailea

---

Nolakoak izan beharko lirateke Gizarte Hezitzaileen Elkargo batek eskeini beharko lituzkeen zerbitzuak?

Elkargoaren ibilbidea hasi zenetik, galdera hau izan dugu etengabe geure gain. Oraingoz guztiz osatu ezin izan ditugun zenbait erantzun aurkitzeko, errealitate konplexu batetara gerturatu nahi izan dugu. Elkargoaren izate anitza aztertzeaz gain, geure lanbidearen egitura bere osotasunean ikusteko ahalegina egitera eramán gaituen gerturatze bat. Ez da gutxi.

Elementu hauek kontutan hartuta, lehen pausu hauek, lanbidearen errealitatearen eskutik eman nahi izan ditugu, funts argia duen zerbitzu bat eraikitzeko asmoz. Hau da, Lanbidearen garapenean, giza heziketa ekintzaren hobekuntzan, eta beraz, ekintza berak gerturatzen gaituen pertsonen bizi kalitatearen hobekuntzan oinarrituriko zerbitzua.

Berau gauzatzeko, geure sustraietan oinarritu gara. Hauek, jakin badakite, geure egunerokotasunean hezitzaile bezala luzatzen dugun eskeintzak pertsonengan, taldeengan eta komunitateengan, bapateko erantzunak ez dituela sortzen. Bertatik, begirada egokitu dugu, prozesu kodeetan lan eginez, baita egiten duguna osotasunez ikusiz. Zerbitzua, ikusten dena edo zuzenki adierazten duguna soilik ez dela jakinez. Eta, ondorioz, elkargoaren zerbitzuak sail honi zuzenki lotu direnak aurkeztea, bere benetako izatea murriztea izango litzatekeela pentsatuz. Elkargoak, beraz, izatez zerbitzu izaera duela ulertuz.

Guzti honen inguruan hausnarketa sakona egin eta elkargoak ireki dizkigun aukerak ulertu ondoren, aurkitu ditugu soilik Elkargokideen Oinarrizko Zerbitzuen sailak ekarri dizkigun erreztasunak. Batzuk ezagunak dituzu. Beste batzuk iristear daude. Goza itzazula.

## Euskara eta Giza-heziketarako eskuhartzea

Maidier Gómez  
Gizarte Hezitzailea

---

Ez dut uste inor arrituko denik, gizarte hezitzaileok gure egunerokotasunean egiten dugun lanaren inguruan idazteko zailtasunak ditugula esaten baldin badut. Gure eguneroko eginkizunei buruz erreflexionatzea ez da ohizkoena eta ezta hau paperean isladatzea ere. Egunero erraztasunez eta modu profesionalean egiten dugun eskuhartzean, egindako gauza guztiak (asko dira eta), paperean jartzea asko kostatzen zaigula esan dezakegu. Honetaz gain, beste zailtasun batekin topatzen gara, eskuhartze gehienak erdaraz burutzen ditugula. Beraz, gizarte hezkuntzako arlo desberdinetan burutzen diren lan desberdinei buruzko gizarte hezitzaileek garatutako dokumentazioaren faltaz gain, euskaraz idatzitako dokumentazioaren faltaz hitz egin dezakegu, giza eskuhartzerako profesionalen artean, funtsezko lan tresna bezala, bertako hizkuntzaren erabilera modu normalizatu batean erabili ahal izateko. Honekin ez dugu esan nahi eskuhartzeak

euskaraz bere osotasunean soilik egin behar ditugunik, baizik eta, dokumentazioa, kudeaketa lana (koordinazioak, plangintzak, urtekariak, etab) eta baita eskuhartzeko zuzena ere euskaraz garatzeko aukera izatea, hizkuntzaren normalizazio prozesu bezala gure eguneroko lanean.

Guzti honengatik, Euskal Herriko Gizarte Hezitzaileen Euskadiko elkargoko, euskarako komisiotik, elkargoaren egunerokotasunean bi hizkuntz ofizialen erabileraren normaltasunaren alde lan egiten dugu, elkargoaren parte den guztia bi hizkuntzatan edukitzen (web orria, buletina, artikulak, dokumentuak, etab) eta bi hizkuntzak modu berean erabiltzen saiatuz. Bestalde komisiotik, eta baita, elkargotik ere, gero eta material gehiago bi hizkuntzetan, gure esku edukitzea espero dugu, gure eguneroko lana aurrera eraman ahal izateko (kode deontologikoa, dokumentu profesionalizatzaileak, funtzio eta gaitasunen katalogoa, gizarte hezitzailearen hiztegia, etab).

Komisio honetatik ere, gizarte hezitzaile guztiak animatu nahi ditugu bere eguneroko lanean erreflexionatzeaz gain eta paparera pasatzeaz gain, ahal izanez gero, materiala bi hizkuntzatan eratzeko, modu honetan, guztiok laguntzen dugulako euskararen normalkuntzan gure eguneroko lanean.

Eta nola ez, interesa edo gogoia duzuen gizarte hezitzaile guztioi komisiotik parte hartzea animatzen zaituztegu! Edo eta bestela batez ere euskaraz idatzirik artikulua, informazioa, etab idaztera animatu.

Agur bero bat

## **Elkargoak garatutako ordezkariak**

Luz Clemente  
Gizarte Hezitzailea

Lanbide Elkargo ororekin gertatzen den moduan, gure elkargoaren eginbehar nagusietako bat Gizarte Hezkuntzaren lanbidea orokorrean, eta elkargoko kide direnak bereziki, ordezkatzeko da. Eremu eta lurralde ezberdinetan lana garatzen duen profesional multzo osoa hartzen duen erreferentzia izatea CEESPV/GHEren eguneroko jardunean agertzen da.

Iaz gizarte hezitzaileek egindako dokumentu profesionalizatzaileen argitalpenaren lekuko izan ginen. Horiek JAKINTZA bateratua ematen digute, lanbidearen definizioa dugu, gure eginbeharra argitzea ahalbidetzen diguten gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko eremuak jartzen dituzte eta gure esku-hartze guztien gainetik dabilen kode deontologikoa izatea ahalbidetzen digu. Azken horiek jardunak behar dituen muga batzuk zehazten ditu. Gure lanbidetik abiatu eta kanporantz sortzen diren dokumentuak dira, eta, aurkezpen gutun bateratua izan ez ezik, maila ezberdinetan gu definitzeko saiakera egiten energia jartzen duten beste profesional horiei karga arintzen diegu.

Agian, eta elkarteko kideen eta Gizarte Hezkuntzaren berezitasunen ordezkariak itzuliz, JENDAUREAN EZAGUTARAZTEA edo jarduten dugun eremu ezberdinetatik gure burua erakustea da falta zaiguna, ordezkatzeko dugun errealitatea ahalik eta anitz eta zabalena izan dadin. Bakoitzak bere jardura eremuaren barruan egiten du jada hori: "lan egiten dugun taldeentzat parte-hartze eta ordezkariak inguruneak ahalbidetzen ditugu, haien ahotsa entzun dadila! da gure mezuetakoa bat...".

Une honetan esparru teoriko komuna eta parte-hartze esparrua ditugu, Euskadiko elkargoa hain zuzen, eta bertan ahots gehiago entzun nahi dira eta beste errealitate batzuen gaineko ikuspegi zabalagoa izan nahi da. Hori dela eta, zuen aukeren arabera hurbiltzera animatzen zaituztegu, lanbidea elkarrekin eraikitzen jarraitze aldera.

## IRITZIA

### Gizarte hezitzaileentzako laguntza teknikoa edo nork "zaintzen" du "zaintzailea"

Jesús Otaño  
Gizarte Hezitzailea

Nor da eta zer da teknikoki profesionalak "zaintzen" gaituena gure eguneroko jardunean?. Helburua hausnarketan aurrerantz egitea eta hartarako gonbitea luzatzea da, gure barrutik eta gure foroetatik. Hausnarketa gurutzatzen diren eta beharrezkoak zaizkigun alderdi batzuen gainekoa litzateke, eta, ondorioz, lan egiten dugun pertsonekin egunetik egunera garatzen dugun lanean onena emateko eskatu beharrekoak dira: profesionalki gu onartzea, lan esparruak zehaztea eta laguntza gizakoi-teknikoa (1).

Azkenaldian, nire lan esperientzietan nahiz elkargoan gain hartutakotik eratorritakoan, geroz eta ageriagoan dagoela ikusten dugu gure taldea (nahiz eta, ziurrenik, nahi genukeena baino gutxiago), gure lanbide esparrua nabarmenki aurrerantz joatearekin eta gizarte eta hezkuntzari dagokionez herritarrek behar dutenari emaniko erantzunean egokitzapen handiagoa izatearekin batera (ziurrenik lagungarria da ikuspegi horretan nire baikortasun nekaezina eta perspektiba gordetzen duen ikuspegia izateko dudan betebeharra). Hori guztia kontu handiz eta gure burua puzteko balioko duten doako triunfalismoetan erortzeko asmorik izan gabe esaten dut, izan ere, egunerokoan, aurrerapausoak ikustea oso zaila da eta bakoitzak bere etxean "borrokatu" behar du eskura duenarekin, hainbatetan, toki askotan eta "hankak lurrean jarrita", iraganeko akatsek, beste profesional batzuen gehiegikeriek eta botere borroka zentzugabeek egoera ezberdinetara eramaten gaituztelako eta horietan, kasuek (surrealistak askotan) "gurearen" gaineko ezagutza guztiek dutela iruditzea ekartzen dutelako.

Gauzak horrela, gure gaitasunetik abiatuz, urte askotan zehar agerian utzitakoa, gure erantzukizuna da, eta horretan dihardugu, gure tokia eta gure eguneroko lana konplexurik gabe eta lanbidearen eremuko ezagutzaren segurtasunetik aldarrikatzea. Are garrantzitsuagoa dena: gizarte eta hezkuntza esku-hartzea gizarte hezitzaileen eskumen berezia dela aldarrikatzea gure esku dago. Askotan, beste lanbide profil batzuen azpian ikusten jarraitzen dugu gure burua. Horrek guztiak etengabe atentzioa deitzen eta egun oraindik sumatzen ditugun zentzugabekeria horiek guztiak salatzen aritzea ekartzen du, administrazioaren eta erakundeen aldetik erantzukizuna erreklamatzuz, lehenengoena profesional egokiak zorroztasunez "eskatzean", bigarrenena gizarte ekintza orokorraren barruan profesional ezberdinak "kontratatu" eta definitzerakoan.

Hala eta guztiz ere, eta beti jarrera kritikoa mantenduta, denbora "oso garrantzitsu" baten aurrean gaude, martxan dagoen trenaren barruan. Bertan mantendu egin behar da, eta zuzendaritzaren zati bat izan. Une zehatz eta, aldi

berean, funtsezko batetik eratorritako bi elementu nabarmendu nahi ditut. Horiek gure bidean aurrerantz egiten lagun gaitzakete, baikortasuna mantentzen eta une hau aukera modura hartzen. Elementu horiek honakoak lirateke: batetik, Gizarte Zerbitzuen lege berria eta hura Dekretu eta Zerbitzuetan (2) gauzatzea eta, bestetik, Gizarte Hezkuntzaren Diplomaturatik Gradu kategoriara igarotzea (3).

Zorroztasun profesionalaren aldeko laguntza teknikoak eta lan egiten dugun pertsoneri erantzun hobea emateak lan esparruak behar ditu ere, lehen adierazi bezala. Horretarako, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko definizioa behar da lehenik eta behin, gehiegi ito, mugatu edo estandarizatu gabe eta, aldiz, ahalik eta anitzena izanez. Aitzitik, batez ere, Gizarte hezitzaileen funtzioak eta eginbehar eksklusiboak mugatu beharko lituzke.

Kutsu teorikoko sormen hori guztia ezin da egin denborak aurrera egin ahala hartzen aritu garen ezagutza bildu gabe; horretarako, praxia eta praktika horren eta atera ditugun ondorioen arteko alderaketa behar dira. Lan hori kontu handiarekin eta xumeki egin behar da, baina, berriro ere, konplexurik gabe. "Teoriaren" eta "praktikaren" arteko tentsio zaharkitua gainditzeko garaia da jada, Gizarte hezitzaileei horietatik bigarrena uzten baitzitzaitzaigun, behar baino gehiagotan lehenengoaren eskakizuna biziz. Hori ez zen iristen gu asetzera, eta egun badakigu topaketa eta fusioa behar direla, eta bata ezin dela existitu bestea gabe eta alderantziz.

Gauzak horrela, eta gehiegi orokortzeko asmorik izan gabe, onartu egin behar dugu nolabaiteko defizita dagoela zentzu horretan. Esparru batzuk badira, baina ez dira nahikoak. Batzuk oso arrakastatsuak dira, eta jakin badakigu lanean nola laguntzen diguten. Aitzitik, beste batzuk, "zentsugabekoak" dira, ez dute balio, ez dira aplikatzen, eta, are okerragoa dena, beste askotan egon ere ez dago horrelakorik. Ondorioz, gure lana programen azken erantzukizuna eta, zergatik ez esan, gure gaineko erantzukizuna duten horien inprobisazioan uzten da.

Uste dut hezitzaileok izan behar garela geroz eta zorroztasun handiagoa eskatzen dugunak gure lanbidearen garapenean eta lan egiten dugun pertsonetikiko. Horretarako behar besteko ezagutzak eta eskarmentua dugu, eta, beharrezkoa da, beraz, maila orokorreko esku-hartze eredu egonkorak eta alderatuak izatea esku-hartze bereziko eremu bakoitzean. Halaber, beharrezkoa litzateke ere estrategiak martxan jartzeko, esku-hartzeak banakako bihurtzeko, lorpenak neurtzeko, eta, are garrantzitsuagoa dena, horien guztien helmena ebaluatzeko metodologia eraginkorrek garatu eta sistematizatzea. Beharrezkoa da horrek bat egitea zehazki gure lanaren prozesu, asmo eta harreman errealitatearekin, eta lan hori guri dagokigu. Dokumentu Profesionalizatzaileen argitalpena aipatu nahi nuke hemen, zentzu horretan egindako urrats nabarmen bezala (4).

Bestalde, aurrekoarekin uztartuta eta gure lanbide eremuko "teoriko" modura ezartzearen ildoan, gizarte hezitzaileok ezagutzak gainerako lankideei transferitzeko lana hartu behar dugu, esperientziatik hartu dugun ezagutza guztitik abiatuz eta hura antolatu eta sistematizatzeaz gain.

Gizarte eta hezkuntza jardunaren ardura gurea dela jakinda, eta gure lana zertan datzan jakinda, nork laguntzen digu?, eta nork lagundu behar digu gure lana garatze aldera?

Sobera ezaguna da "gurea" lan delikatua dela, bai besteak "jasotzen" duela uste dugun horri dagokionez, bai emateko ardura duenak, alegia, hezitzaileak sentitzen, jasaten edo gozaten duen horri dagokionez. Horren arabera, beharrezkoa da laguntza egiturak sortzea egunerokorako; babes gisa hartzeko asko dugu, eta elkarri jakinarazteko asko dugu gure esku-hartzeen kalitatean, horien

eraginkortasunean eta gure zaintza propioan aurrera egiteko eta, horrela, gainerakoak zaindu ahal izateko.

Gauzak horrela, hemen ere ikusten jarraitzen dugu eta, onartu beharrian nago, oraindik harriduraz ikusten dugu, hezitzaile taldeak gure profila ez duten beste profil bat duten profesionalak koordinatzen eta gidatzen dituztela. Hemen, kasu askotan, nolabaiteko zalantza mantentzen da; horrenbestetan aipatzen den diziplina artekotasuna, hain oinarritzko eta beharrezkoa, ez da pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko profesionalen arteko osagarri modura ulertzen, bai, ordea, elkarrekin lan egiten duten profesionalak bai baina antolamendu hierarkiak ezartzen dituztenak bezala. Hierarkia horiek estaldura zalantzarriak ekartzen dituzte, eta, are larriagoa dena, nahastu egiten dira eta pertsonen benetako beharrek erabat bat ez datozen erantzunak ematen dizkiete.

Aurrerantz egiteko unea iritsi da, eta, orokorrean, gizarte eta hezkuntza esku-hartzeko programa guztietan aholkularitza teknikoko egiturak egon beharko lirake. Lagundu behar duenak lagun dezala eskatzeko garaia da, eta horretarako beharrezkoa da hark gizarte eta hezkuntza esku-hartzeaz hitz egiten dugunean zertaz ari garen jakitea, hau da, beharrezkoa da gizarte hezitzailea izatea.

Pertsonekin lan egiteko beti balio izan duten lan estiloak eta, neurri handi batean, gure jarduna definitu duten estiloak hezitzaileentzako laguntza teknikoko eremuan jarri behar direnak dira ere. Ez da arraroa gertutasunaz, disponibilitateaz eta irekieraz hitz egitea, lankideen arteko laguntzaren funtsezko elementu bezala ere. Funtzio ezberdinetatik ere ez da arraroa, betiere, zuzeneko arretaren arduraduna nor den eta atzeagotik laguntzen ari dena nor den argi geratzen bada. Azken horrek hartutako ezagutzak antolaturik eta sistematizaturik argitu, alderatu, orientatuko lituzke, eta, zergatik ez, partekatuko lituzke, lanbide honen eskuzabaltasun inplizitutik eta lehen aipatutako esku-hartzearen egokitzapenerako gida eta laguntza modura eraikita. Horrek profesionalen erritmoekiko errespetuaren alde egiten du. Gure laneko ikuspegia eraikitzailea da, izan ere, hezkuntzaren lana egunetik egunera egin beharrezkoa da pertsonekin, eta ez da ezberdina lana garatzeko prozesuan diharduten profesionalen kasuan.

Gutako batzuk denbora daramagu lan hori egiten, eta geroz eta erakunde gehiago dago gizarte hezkuntzako profesionalekin egiteko esfortzua egiten dutenak, esperientzia hobetuz eta aprobetxatuz. Oraindik guztiok adierazitakoa argi ikustea, defendatzea eta exijitzea geratzen da, anbiguotasunik gabe, eta, kasu askotan, gure lanbide jarduna hobetzeko gure eginbeharren zerrandan egon behar diren funtzio berri horietara salto egitea geratzen da. Helburua beti lan egiten dugun pertsonen eskainitakoaren kalitatean aurrerantz egitea izango litzateke.

*(1) Gure gizarte eta lan baldintza berezietan heldien dien alderdia gure zaintzarako betekizun modura ere har daiteke. Izan ere, funtsezkoak badira ere, ez dira hemen aipatu gure lanaren alderdi teknikoaren arreta emateko.*

*(2) Batetik, legedia, araudia berezkoa dugun horretan hartutako papera zehazten eta berresten ari da. Ez dut aipamen gehiegirik egingo argitalpen honetako monografiaren xede den gai horretan, hain zuzen ere Gizarte hezitzaileen irudia gizarte zerbitzuen erreferentziako profesional modura Gizarte Zerbitzuen Legean bertan nola hartzen den. Hala eta guztiz ere, ikusteko dago, eta lantzeko geratzen zaigu, Legea bera Dekretuetan eta zerbitzu Katalogoan gauzatzea, eremu horretan "arretarik galdu gabe" eta gizarte zerbitzuen alorrean mantentzea eta tokia irabaztea ahalbidetuko diguten ekarpenen ildoan jarraituz. Gauzak horrela, gizarte eta hezkuntzaren alorra Gizarte hezitzaileen berariazko esparrua da.*

*(3) Une honetan ere, jakina den bezala, Gizarte Hezkuntza Diplomatura izatetik Gradu ikasketara izatera igarotzen da, gainerako titulazioak bezalaxe. Hori aukera bat da prestakuntza eta gaitasun ildo berriak ezartzeko etorkizuneko Gizarte hezitzaileentzat. Gure presentzia aktiboa eta egin diren ekarpenak frogatzen dira gure papera beharrezkoa dela frogatzeko etorkizuneko titulazioaren eraketan. Hura estatu mailan proiektatzen ere ari da, estatuko egitura profesionalaren berezko aukerak baliozkotuz eremu akademikoetatik proposaturiko haien aurrean. Horiek barreiapen handiagokoak ziren, eta zerikusi gutxiago zuten errealitate profesionalarekin eta "lanbidearekin".*

*(4) Dokumentu profesionalizatzaileen argitalpena funtsezkotzat jotzen dudan beste elementu bat da, lanbidean sakontze aldera. Batzuk asko hitz egiten dugu dokumentu horren garrantziaz; profesionalki garatzearen gure prozesuaren jarraipena da, eta beharrezkoa da hori "sinestea" eta "gure egitea" Euskadiko lanbide errealitateari eta gure eguneroko errealitateari egokitzetik. Horrek aberastasuna besterik ez du ekarriko, dokumentua etengabeko berrikuspenpean egongo dela bermatzearekin batera.*

## ESTATUA

### FEAPES

Néstor Sangróniz  
Gizarte Hezitzailea

Gaur egun, Euskadin Elkargo Profesionala dagoenetik eta 100.000 kide baino gehiago eta hamar elkargo autonomikoak (gure elkargoa barnean dagoelarik) biltzen dituen Gizarte Hezitzaileen Elkargoetako Kontseilu Orokorraren sorrerarekin, zaila gertatzen da pentsatzea duela hamabost urte zer zen Gizarte Hezitzaileen mugimendu profesionala.

Garai hartan, Euskadin asoziazio profesional bat zegoen lurralde historiko bakoitzean eta iritzi bereko euskal federazio bat. Mugimendu profesionala "hezitzaile espezializatutik" "gizarte hezitzaile"rako migrazio prozesuan zegoen. Hezitzaile Espezializatuen Asoziatioko koordinatzailea, 1989.urtean sortutakoa, Hezitzaile Espezializatuen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioan bihurtu zen, azkenean 1992. urtean Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazio (FEAPES) bilakatzeko.

1991. urtean Gizarte Hezkuntzako Diplomatura ezarri zen eta Euskadiko lehen promozioa Deustoko Unibertsitatean izan zen 1993.urtean ( nik bertan parte hartu nuen).

Testuinguru honetan eta Bizkaiko Hezitzaile Profesionalen Asoziazioaren izenean 1993an Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioko zuzendaritza batzordean barneratu nintzen idazkari funtzioak burutzera. Federakuntza Gizarte Hezitzaileen Estatu Kongresuko antolakuntza bultzatzen zebilen, titulazio historikoen homologazioa negoziatuz eta elkargo profesionalen sorrerarako bideak miatuz.

1995ean Murtzian burutu zen Gizarte Hezitzaileen Lehen Kongresuaren antolakuntzako koordinatzailea izan nintzen; mugimendu profesionalak bizi izan duen mugarrri garrantzitsuenetako bat pairatu ahal izan nuen, Kongresu honetan estatuko 800 profesional eta unibertsitateko ikasle inguru bildu zirelako. Nere ustetan, kongresu honek gizarte hezitzaileen mugimendua martxan jartzea suposatzen zuen, administrazio eta unibertsitateekin hizketaldi prozesua era bat erreztuz. Jakina den bezela, Lehen Kongresu honetako ondorio garrantzitsuenetako bat Elkargo Profesionalen sorrerara bideratzea izan zen, non elkargo hauen bitartez posible izango litzateke gizarte hezitzaileen funtzioak betetzen zituzten profesionalak eta unibertsitatekik diplomatu berriak ateratzen ziren gizarte hezitzaileak biltzeko eta bateratzeko aukera bat sortzea. Gizarte Hezitzaileen iragana eta etorkizuna bilduko zuen eredia.

1995. urtean bertan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Hezitzaileen Asoziazioen bateraketarekin, Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionala – Gizaberri sortu zen. Mugimendu profesionaleko parte hartzaile bezala, Murtziako Kongresua eta gero Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioko lehendakaritza beraganatu nuen Gizaberriko enkargu eta ordezkaritza modura.

Gizaberriek Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioko lehendakaritza funtzioak burutu zituen hiru urteetan zehar, erakunde profesionalen sendoketa lanetan oso lan garrantzitsua egin zen eta unibertsitatearekin zegoen erlazioan asko sakondu zen diplomatu berriak asoziazio mugimendu honetan barneratzeko asmoz. Denboraldi hartan, Gizarte Hezitzaileen Lehen Elkargo Profesionalaren sorrera bizitzeko aukera izan nuen: Azaroaren 15ean Kataluinako Parlamentuak 15/1996 Legea onartu zuen "Col·legi d'Educadores i Educadors Socials de Catalunya (CEESC)" sorrerarekin.

1998. urtean, Gizaberriek Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioko lehendakaritza eta zuzendaritza batzordea uztea erabaki zuen, eta hortaz buruzagitza; ahalegin guztiak Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren sorreran zentratu zuen, eta lan hau, Abenduaren 22an amaitu zen Euskal Parlamentuak 7/2003 legea onartu zuenean Euskal Herriko Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren onarpena emanaz.

2001. urtean, Gizarte Hezitzaileen Asoziazio Profesionaleko Estatu Federazioa desagertu egin zen eta ASEDES bilakatzera pasatu zen; Asoziazio eta Elkargo Profesionalak bateratzeaz gain, bere historia eta xedea jasotzen zuen. Bere desagertpenarekin, mugimendu profesionalaren aldi oso garrantzitsu bat itxi zen, eta gaur egun Gizarte Zerbitzuetan, Hezkuntzan eta Osasun Zerbitzuetan behar beharrezkoak eta oinarrizkoak diren irudi profesionalen oinarriak finkatu ziren.

## **ASEDES**

Flor Hoyos  
Gizarte Hezitzailea  
Lehendakaria – ASEDES

ASEDES, 2000. urtean sortutako, Gizarte Hezkuntzako entitateen estatu mailako elkarte da, eta FEAPESen, Gizarte Hezkuntzako profesionalen estatu mailako elkartearen federakuntzaren herentzia da. Azken honen desagertzearekin, elkartearen sorrerak, erakunde desberdinen kolaborazio juridikoa zilegi du, eta elkarteak elkargo bilakatzeko prozesuen koordinatzaile gisa jokatzeko du, eta egun arte, estatu mailan gizarte hezkuntzako ordezkaria izan da, eta baita AEIJI bezalako, Gizarte Hezkuntzako elkarte internazionalaren kide den, organismo nazional eta internazionalen aurrean.

ASEDESen historia poliki poliki sortu zen, FEAPESen herentzi bezala, honen zenbait dokumentu jasota, lan bide batekin, Madril, Bartzelona, etabeko lokaletan bilduta, milaka kilometro egin dituzten "elkateen filosofoen" etengabeko kontakizunekin eta denak mahai baten inguruan hasiberria zen batzorde bat osatzeko.

*...Batzuetan historiak gidatzen gintuen, eta beste batzuetan historiak pisatu egiten gintuen, ez zitzaigun baliagarria. Gure aurrean genuena aztertu genuen eta estatutuko helburuetara iristeko genituen "enkarguak" betetzeko falta zitzaiguna*

*ikusitu genuen eta denbora hartu genuen. Elkar ezagutu ginen, lan taldea sortu genuen, lan egiteko modua eta egitura minimo bat, eta indarra hartu genuenean, eta mezu común bat genuenean, maletak egin eta estatu mailako puntu guztietara gerturatu ginen batzorde bezala.*

*Erreferente ziren izenei aurpegia jarri genien. Bilerak egiteko bere esku uzten zizkieten edo ia ezin ordaindu zitekeen alokatutako lokaletan biltzen ziren lankideak ezagutu genituen, bere ingurunean ikusgarri izan ahal izateko lan egiten duten elkarteak eta aldi berean estatu mailako zereginetan konpromisua hartzen zutenak...*

Gauz asko genituen, bestalde asko falta zitzaigun oraindik ere...benetako partehartzea izango zuen egitura bat sortu, estatu mailakoa, eduki berri eta propioez hornitu, lurralde eta modelo desberdinak batu, zeuden estatu mailako gainontzeko lurralde historiko eta aurrenetarikoei begirunea azaldu, Euskal Herriko elkarteak bezala, atsedenaldira eskaera...

ASEDESeko helburu garrantzitsuenak honako hauek ziren eta dira:

1. Gizarte Hezkuntzaren eta gizarte hezitzaileen giza eta profesional eskerrona sustatu.
2. Autonomi, estatu eta internazional mailan, elkarte profesionalen garapenean lankidetzan aritu eta hauek sustatu.
3. Estatu maila osoan, lanbideko elkarten errealitate desberdinentzat elkargune bezala baliatu.
4. Autonomi elkargo guztietan, elkargo profesionalen sorreran lankidetzan aritu.
5. Gure eguneroko lan profesionalean eta Gizarte Hezkuntzan eragina duten materiei buruzko azterlanak, ikerketak eta prestakuntzak sustatu, lan hau hiritartasunaren interes eta beharretara egokitzeko.

Ondorengo elementu garrantzitsuak nabarmendu dira, bi hamarkada baino zerbait gehiagotan, estatu mailako profesio elkarteek jasatako mugimendu indartsuaren garapenarekin, non ASEDES alderdi suspertzailleetako bat izan zen:

Estatu mailako elkar lan esparru bat sortzeko, elkarte eta elkargo profesional guztien konpromezu historikoa da, eta baita bere ordezkariena ere.

Prozesua garatu den transparentzia, erakunde guztien (hauen adierazgarritasun eta antolakuntzarako gaitasuna aintzakotzat hartu gabe) partehartzea, ekarpenak egiteko ahalmena eta proiektuaren korresponsabilitatea ahalbidetuz.

Erakunde guztien arteko, aurrez adostutako ildoak errespetatzeko, solidaritatea eta konpromezua.

Estatu mailako erakunde eta gizarte hezitzaileen arteko aniztasunak, errealitate, nahi, helburu, etab, ezberdin bildu ahal izan ditu.

Jasangarritasuna, prozesua espaini mailako gizarte hezitzaile guztiei eta estatu mailako proiektu hau ekonomikoki diruz laguntzeko konpromezua adierazi duten erakunde guztiei esker finantziatu baita.

Lanbidearen istorioaren eta bere profesionalen errekonozimendua.

Erakunde autonomikoen zabalkundea gainontzeko espainiar erakundeetara, Europara eta orokorrean mundura, ezagutzeko, konpartitzeko eta elkarrekin lanbidearen eraikuntzan ekarpenak egin ahal izateko.

Azkenik, ASEDES-ek elkartegintza profesionalari egindako ekarpen garrantzitsu batzuk gainera aipatuko ditugu:

**Elkargo profesionalen sorkuntzarako laguntza.** Hamar elkargo lortu ditugu urte guzti hauetan zehar.

**Lanbidearen errekonozimendurako prozesuetan lan egitea; gaiketarako figura eta homologazio prozesua,** (urtarrilaren 30eko, 168/2004ko Dekretu errealararekin amaitzen dena)

**Lanbidea garatzeko "gizarte hezitzaileen kode deontologikoaren" eraketa.** 2002. urtean Toledon onartuta eta 2007. urteko Balentziko azken biltzarrean errebisatuta.

**"Gizarte hezkuntzaren" definizioaren lanketa.** 2002. urteko Gizarte Hezkuntzaren estatu mailako biltzarrean onartu zen, hau **"funtzio eta kompetentzien" katalogoarekin** osatzen delarik. Azken hau profesioaren kolektiboak onartu duen azken dokumentua da.

**Gizarte hezitzaileen estatu mailako hiru batzarren eta maila internazionalako batzar baten antolaketa** (Batzelona 2001, Santiago 2004 eta Toledo 2007).

**Gizarte Hezkuntzaren eduso.net portalaren eratzea eta kudeaketa.** Web gune honek hilean 112.000 bixita ditu batazbeste, gizarte hezkuntzaren ate ezagunenean bilakatuz, honetaz aparte, profesional eta ikasle guztien topaketarako gunea da eta oso baloratuta dago formakuntzarako tresna didaktiko gisa.

**Internazioalki proiektzioa,** Gizarte Hezitzaileen Elkarte Internazionalan egindako partehartzeari esker (AIEJI). Estatu mailako elkartegintzaren hasieratik, elkartegintza internazionalarekin harremana mantendu eta partehartzea izan genuen, profesionalen kolektiboa, gure lanbidearen beste errealitate batzuk ezagutzen eta ekarpenak egiten, hazteko helburuarekin.

**Gizarte hezitzaileen elkargoen Kontseilu Orokorraren eraketa** (Abenduak 26aren 41/2006 legearen bitartez, Gizarte Hezitzaileen Elkargo Profesionalen Kontseilu Orokorraren eraketa).

Elkargoen Kontseilu Orokorra, lanbidearen istorioaren eta espaiñiako gizarte hezitzaileen nondik norakoak jasotzen ditu.

Hau da etorkizunerako irekitzen den erronka.

*Bigarren plano batetik, ASEDES-ek uzten duena batez ere errespetuz gauzak egiteko eta begiratzeko modu bat dela uste dut, hitz guztiak behar duten pixua izateko esfortzu handiak egin dira batzuetan. Adostasunaren filosofia bat gauz guztien gainera.*

*ASEDESek... bizitza eta etengabeko ikaskuntza den lanbide honen kide izatearen poza eta esker ona uzten dit.*

## La participación de CEESPV-GHEE a nivel estatal

Elena Aycart  
Gizarte Hezitzailea  
Komunikazio saileko Batzordekidea – CGCEES

Denbora tarte batean Gizaberrri Elkarteak estatu mailan parte-hartze aktiboa izateari utzi zion, indar guztiak Lanbide Elkargoa lortzearen gaian jartzeko. Behin hura eratuta, estatu mailako mugimenduan berriro sartzeko unea iritsi zen. Horrela, ASEDESi eskaera luzatu zitzaion, 2006ko otsailean Valladoliden egindako urteko asanbladan gauzatu.

GHEEren parte-hartzea geroz eta aktiboagoa izan da pixkanaka, batzorde ezberdinetako kide modura eta ASEDESetik eskatutako ekarpen ezberdinak eginez. Halaber, Elkargoen Kontseilu Orokorren eraketa prozesuan parte hartu du.

ASEDESi dagokionez, 2006an zehar hurrengoetan parte hartu zen: funtzio eta gaitasunen dokumentua lantzeko lantaldea, gizarte eta lan baldintzen batzordea, batzorde deontologikoa nahiz gai ezberdinetan egindako kasuan kasuko ekarpenak. Aldi berean, Elkargoen Kontseilu Orokorren sorrera prozesuan sartu ginen, 2007an are biziago bihurtuz Batzorde Kudeatzailearen eraketarekin eta estatutuen, printzipio ideologikoen, egituraren... alorretan egindako lana dela eta.

Uztailean, Donostian antolaturiko asanbladan, Kontseiluaren komunikazio kidezaren ardura gain hartzea onartu genuen, eta horrek, besteak beste, Eduso.net atariaren kudeaketa lanak egitea dakar. Ondorioz, baliabide horrek komunikaziorako bide eta "gurearen" bozgorailu modura lortutako maila altua mantentzeko erantzukizuna hartu genuen. Kudeaketa horretarako hitzarmena irailean sinatu zen, Toledon egindako estatu mailako V. Biltzarrean.

Euskadi estatu mailako dimentsiora itzultzea apustu garrantzitsua izan zen, gure elkargoaren beraren egituratze unearekin bat egiteagatik. Aitzitik, gure lanbidearekin koherentzia izateagatik, gure aukeren arabera erantzun egin behar zaion aukera da, gure lanbidean transmititzen dugunetik asko irudikatzen duelako: konpromisoa, inplikazioa, parte-hartze aktiboa, solidaritatea...

Lana da, egia da, baina proiektu komunak sortutako ilusioa ere bada. Bertan, esfortzuek eta ahotsek bat egiten dute, Gizarte hezitzaileei egindakoa onartzean.

GHEEren filosofia oreka mantentzearena da, tokikoaren eta globaltasunaren arteko oreka hain zuzen. Horrela, eskainitako denbora eta esfortzua tokikoari emango zaio nagusiki, eremu globalak harengandik hartzen duen eta hura sendotzen duen bitartean.

## GIZARTE HEZITZAILE ELKARGOEN ESTATUKO KONTSEILU OROKORRA

Alberto Fernández de Sanmamed  
Gizarte Hezitzailea  
Lehendakaria - CGCEES

Gizarte Hezitzaileen Kontseilu Orokorra, lanbidearen kolektiboari estatu mailan eta maila internazionalen ordezkartuko duen eta elkargo profesionalen maila bereko organua osatzeko zegoen beharrari erantzuteko sortzen da.

Autonomikoki zeuden elkarteak Elkargo profesionaletan bilakatzen joan ziren modu berean, estatu mailako elkarte (ASEDES) estatu mailako Kontseilu batetan bilakatzeko beharra ikusi zuen. Honetarako Kontseiluaren komisioa sortu zen, azken honek Legearen proposamena landu zuen eta honetaz gain administrazioarekin CGSEES-a gauzatzeko beharrezkoa zen guztia negoziatu zuen.

Gorabehera askoren ondoren, legea Diputatuen Kongresuan sartu zen eta aho batez onartua izan zen 41/2006 legearen sorreraren arabera.

Honetarako, Kontseiluan ordezkatuta dauden talde politiko guztiekin egin genuen lana guztiz garrantzitsua izan zen, batez ere, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa - Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del Pais Vasco egin zuen lana, honen inplikazioa Kontseiluaren sorreran lagundu bait zuen.

Estatu mailan ofizialki ordezkatzeko gaituen organismoa sortu dugu beraz, baina erakunde hau sendotzeko gai izan bagara, Kudeketa lanak aurrera eramatea helburu duen erakundearen sorrerakin geratuko bagiña, mesede latza egingo genuen gure lanbideari, hau da, ez litzateke batere mesedegarria izango gure lanbidearentzat elkargoen arteko erlazio administratiboak eta estatu mailan eta maila internazionalen profesioaren inguruko hainbat aspektuaren alde egiteko sortutako organu baten sorrerarekin konformatzea.

Bi aspektuak garrantzi handikoak dira baina Gizarte Hezitzaile bezela, ordezkatzeko gaituen erkundearen izaera ezberdina izatea nahi dugu. Ordezkatzeko gaituen erakunde elkargo ezberdinentzako baliagarria izatea nahi dugu, eta honen bitartez gizarte hezitzaileentzat baliagarria izatea nahi dugu, eta honen ondorioz, lan egiten dugun pertsona eta taldeentzat baliagarria izatea nahi dugu.

Lehenengo momentutik, eta gure lanbidearen izaera soziala kontutan izanda, behar genuen Kontseilu motaren inguruan eztabaidatzen egon gara, honek lan egiteko modu konplexuago bat zekarren baina baita ere era eraginkorrago eta baliagarriago den lan egiteko era bat.

Honetarako lanean hasi gara, 2007ko otsailean, Lugon, Kudeaketarako Komisioa osatzen da, Komisio honek behin-behineko estatutuen proposamena landu du, hauek Ministerioekin izandako negoziaketak eta gero publikatu dira; Valentzian, maiatzean, lanerako plana ezartzen da eta uztailan, Donostin, karguen aukeraketa ospatzen da eta denboraldi berri honen lanarekin hasten da.

Une erabaikorra batetan gaude beraz, eraikuntza une batetan, une honek gaur eguneko gizarterako ezinbestekoa den lanbidean bilakatzeko beharrezkoak diren tresnaz hornituko gaitu.

Asko dira egiteko ditugun lanak: Elkargoen Estatutu Orokorrak landu, estatu mailako elkarteak orain arte aurrera eramaten zituen funtzioen traspasoa egin...

Funtzio hauen traspasoa egiterakoan, elkargoa ez duten herrialdeen gizarte hezitzaileen elkarteekin konbenioen sinaketa burutu beharko da. Honekin estatu mailako profesional guztien partehartzea, estatu mailako nahiz maila internazionalerako foroetan, ziurtatzea lortu nahi

Gure aurrean ilusioz beteriko lan bat dugu eta gure ardura izango da etorkizunaren izaera.

Legez Kontseiluak egokituta dituen funtzioak aurrera eramateaz gain, beste hainbat lan burutu beharko dugu; estatu mailan gizarte politikaren arloan hurrengo urtetan bete nahi dugun papera erabaki beharko dugu; Ministerioekin negoziatu beharko

dugu gure egoera profesionala normalizatzeko, gure lanbidea legez erregulatuta egon dadin lan egin beharko dugu; gure lanbidearen propio diren tresnaz hornitzen jarraitu beharko gara (informeak, praktika onarako manuala...), gure papera maila internazionalako asozianismoan finkatuko dugu, eta batez ere, gure lanbidea kalitatezkoa, beharrezkoa eta lanean ari garen pertsona nahiz kolektiboentzat baliogarria izateko ahalegiñak egingo ditugu. Eta honegatik, beharrezkoa eta baliogarria delako, bateratuago eta hobeto prestatuago egotearen alde lan egitea pena merezi du.

Hau izan beharko du CGEES-ren azken eta oinarritzko erronka